




# ARGIA



SATLANTIS

**Azpijoko publiko-pribatuak  
eusko label armagintzan**

# 2.876 | 2024 / 06 / 23 | 4,00 €

24-29. orrialdeak



**Kutsadura murriztean  
klima berotzearen  
paradoxa**

12 | INGURUMENA



**"Ausartak eta  
indartsuak garela  
erakusten ari gara"**

14 | BOLIVIAKO TXOLITAK




**"Erreakzio  
matxista dago, bai"**

34 | IRANTZU VARELA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #297  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



NOLA  
IRAKURZALETU  
IKASLEAK

ARGIA.EUS/LARRUN



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA

## Iritziak

- 19 | ASIER BLAS MENDOZA
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | RUBEN SÁNCHEZ
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | BEÑAT IRASUEGI

## Finkoak

- 40 | GORPUTZ HOTSAK
- 42 | BIZI BARATZEA
- 46 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO  
BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ZOE MARTIKORENA / ARGIA-CC-BY-SA

### 14 | TXOLITA ESKALATZAILEAK

Reyes llinxetak elkarrizketa egin die Elena Quispe eta Cecilia Lluscori. Aimara emakume baserritarrak dira eta euren pollera gona koloretsuekin Amerikako mendi garaienak igo dituzte, eta Everest igotzea dute hurrengo helburu. Zergatik eta nola? Horretaz mintzo dira.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Nola saihestu dezakegu aire kutsatuaren murrizteak dakarren berotze efektua?**

Nicolas Goñi

24 | EKONOMIA | SATLANTIS ADIBIDE

**Gerrak sortzen dituen euskal industria militar berria**

Gasteizkoak talde antimilitarista

30 | EUSKARA

**Badakizu nola esaten den 'libélula' / 'libellule' euskaraz?**

Onintza Irureta

34 | FEMINISMOA | IRANTZU VARELA

**"Erreparazio zein mendeku ariketa bat da nire eleberria"**

June Fernandez

38 | HEZKUNTZA | LUIS LARRAÑAGA

**"Heziketa fisikoa eskolako ikasgai bat gehiago den unetik, jasotzen duen tratuak ezin du hau izan"**

Mikel Garcia

48 | KULTURA

**Literatura ez da ezer arriskutsua, ezta?**

Larraitx Fagundez


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirgoien,  
Jon Torner, Julen Ugartemendia,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Manex Usarralde,  
Mikel Garcia, Onintza Irureta,  
Olaia L. Garaialde, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua:** SS 837-2012

**ISSN:** 0213-909X

**Batzorde parekidea:** 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

 Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:


## Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitaratu  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da  
testuentzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA



# 444.100

153.600 euroko zigorra jarri diete Aske antolakundeko 128 kideri preso politikoan aldeko elkartasan ibilaldi bat egiteagatik. 290.500 eurokoa Ernaiko 133 kideri, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteen espexkeratzearen aurka protesta egiteagatik. Neurritz kanpoko zigor hauen bitartez, gazte antolatuak jo-puntuan jarri ditu Eusko Jauriaritzako Segurtasuna Sailak, zer eta Mozal Legea ezten hartuta. Espainiako Estatuan mende honetan kontraktasun handiena eragin zuen lege hori "injustua izateagatik" Eusko Jauriaritzak adierazi zuen ez zuela aplikatuko. Hori esan eta hurrengo egunetik aurrera masiboki erabili dute gaur arte. Polizia sindikatu ultrasuindarrek eta PPK salbu, alderdi eta eragile guztiek kontra zeudela zioten. Baina errealitatea da, siglak sigla, agintean dagoenak ez diola uko egin disidentzia politiko oro itotzeko "gozoki" horri. Eta gauzak horrela, uztailen bederatzi urte beteko ditu mozalak indarrean.

RAUL BOGAJO / FOKU

AXIER LOPEZ

# 153.600





00 €



AIHOTZ  
PLAZA



NA  
UA!





# Eskuin muturraren aurka karrikak hartu dituzte

**JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

**E**skuin muturraren aurkako manifestazioa egin zuten Baionan ekainaren 15ean, ondorengo sindikatuek deituta: Cfdt, CGT, ELB, FSU, LAB, Solidaires, UNSA eta lizeotarren USL. Deialdiarekin bat egin zuten Alda, Cimate zein bestelako hainbat kolektibok ere. *Larrialdi soziala, demokrazia lanjerrean* lelopean egin dute protesta. Eskuin muturrari bidea mozteko esperantzarekin, "ikaraldi demokratiko eta sozial" baten aldeko deia luzatu dute sindikatuek aho batez. Argi dute: eskuin muturrarekin langileria beti aterako da galtzaile eta abisu hori entzunarazi nahi izan dute.

Frantziako Estatu osoan izan dira manifestazioak, hamarnaka elkarte, sindikatu, alderdi zein kolektibok egingo deiarri segi. Tartean dira, besteak beste, LDH Giza Eskubideen Liga, AC! langabeen kolektiboa, Attac elkarte zein Ripostes sare antifaxista.

Ekainaren 9an buruturiko Europako Parlamenturako hauteskundeetan lehen indarra ateratu da eskuin muturreko RN alderdia Frantziako Estatuan -botoen %31,37-, baita Ipar Euskal Herrian ere -botoen %22,7-. Legebiltzarra desegin eta bozketara deitu du Emmanuel Macron presidentea, ekainaren 30erako eta uztailaren 7rako.

**Argi dute: eskuin muturrarekin langileria beti aterako da galtzaile eta abisu hori entzunarazi nahi izan dute**

Europako Parlamenturako hauteskundeetan biharamunean jadanik ateratu ziren mila lagun Baionako karriketara, faxismoaren aurkako leloak zabaltzeko xedez. Jendetsua eta zaratsua izan zen manifestazioa. Milaka lagun batu ziren eskuin muturrak lorturiko garaipenari erantzuteko beharretik. *RN c'est la haine* [RN herra da]; *Euskal Herria Antifaxista*; *Bardella, entzun, pin pan pun*; *De Gaza au Pays Basque: antifasciste* [Gazatik Euskal Herrira: antifaxista]... hastetik buru oihuka iragan zen protesta. Sindikatu, ezkerreko alderdi politiko zein elkarte batzuen banderak ikusi ahal izan ziren eskuz eraikitako pankarta propio andanaren artetik. Gazteria batu zen nagusiki eta Fronte Nazionala alderdia Batasun Nazionala bihurtu arren, *la jeunesse emmerde le Front National* [Gazteriak kakinarazten du Fronte Nazionala] lelo historikoa bere egin du egungo belaualdiak ere. ●



# Israelekin harremana eteteko mozioa onartu dute 30 udalek

**JULEN UGARTEMENDIA CARCEDO**

**E**uskal Herriko hainbat gizarte mugimenduk sortutako Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformak bultzatu du ekimena. Palestinako herriri laguntzeko eta lurralde erantzukizunak hartzeko egindako mozioan, Hego Euskal Herriko dozenaka udalek konpromisoak hartu dituzte.

Gizarte mugimenduek nabarmendu dute plataforma honen sorrera premiazkoa dela "sarraskia eta bidegabekeria geldiarazi ezin izan duten nazioarteko erakundeen eraginkortasunik ezaren aurrean".

Mozioa honako 30 udalerrietan onartu dute: Agurain, Aiara, Aramaio, Arantzazu, Areatza, Aretxabaleta, Arrigorriaga, Artziniega, Aulesti, Asparrena, Bergara, Dima, Donemiliaga, Alegria-Dulantzi, Erriberagoiti, Eskoriatza, Igorre, Iruraitz-Gauna, Kanpezu, Legutio, Lemoa, Munitibar, Oiartzun, Ondarroa, Oñati, Ordizia, Orereta, Tolosa, Trapagaran, Urkabustaitz, Zaldibia, Zalduondo, Zeanuri, Zeberio eta Zuia. Mozio onartu ez duten bost udalak Artea, Barakaldo, Irun, Urduña eta Gasteiz.

Mozio hau onartuta, Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformak zehaztutako konpromiso zehatz hauek onartu dituzte: egiturazko arrazoia okupazio koloniala eta apartheidarela salatzea, noranzko biko enbargo militarra eskatzea eta sionismoarekiko lankidetzaren militarreko eta segurtasuneko programa guztiak etetea, Israelgo Gobernuaren eta bere arduradunen aurkako zehapen-programa bat hastea eta harreman diplomatikoak etetea nazioarteko zuzenbidea bete arte, eta Israelgo Gobernuarekiko harreman instituzional guztiak etetea, behin betiko su-eten iraunkorra izan arte, giza eskubideak bermatu arte eta nazioarteko zuzenbidea errespetatu arte.

Guztira 46 mugimendu, elkarte, sare, sindikatu, asanblada, talde feminista eta espaziok lagundu dute prozesuan eta Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformak eskerrak eman dizkie denei. ●



# Garbiketa



UXUE APAOLAZA LARREA

**A**skatzeko lasta, gora egin ahal izateko, esan zenidan, azken (ez genekien hala zela) aholkutzat. Eta nola hobeto etxetik kanpora botatzea baino nekeak pilatutako zaborra.

Hozkailuan lizunak hartutako tomate pota bat, eta ondoan beste bat, lehenengoa txartutakoan irekitakoa, eta ondoek jana hori ere. Izozkailuan zuretzat egindako albondigak, soberan geratutakoak, hurrengorako, eta ez ditut jango. Kanpora. Ardo zuria ere bai. Beno, hori ez, baina garagardo latak bai, eta infusio guztiak.

Arropa pila bat sartu dut zakar poltsa handietan. Ezingo ditu inork aprobetxatu, nik aprobetxatutakoak baitira, saretuta daude. Alkandora hori, koadroduna, berez, erabiliko nukeen. Baina hainbeste gustatzen zitzaizun. Zurea dirudi. Zuretzat dirudi. Kanpora.

Etxe berrirako erositako lehen altzaria, idazmahai zahar bat, laneko paperen azpian zegoen, ikusezin: klip pila bat erreskatatu ditut, poltsak eta poltsak bete: asteartean nire zaborraren esekitokian gabonak izango dira. Zuk ekarritako koaderno berri-berri bat ere jarriko dut, guztiz zelulosazkoa: presioak eragindako opari bat. Nik osatu behar izan nuen merezi ez zuen ilusioz ospatuta. Liburu bat ere botako dut. Gustatzen zaidan bat. Hogeita bi urte nituela edizio horretan berean irakurri nuena, bigarren eskuko liburuen leku horretan berean erositako, eta noizbait ilusioa egin zidana zuk ere nik orduan irakurritako formatu berean irakurri zenezan, orain, berrogeita pikurekin.

Aulkia ere bai. Oparitu zenidan lehenengo gauza; baina oztopo egiten du, handiegia da nire balkoirako, zaila da lekualdatzeko, eta ipurdia beheraegi geratzen da: inoiz ez naiz lasai esertzen (etzaten-en antz handiagoa du aulki horretan gertatzen denak), irentsi egiten nau, badakit altxatzea zaila izango dela. Balkoitik behera bota dut zuzenean, ez zegoen inor azpian.

Eta, hara, zu ere bota zaitut, ia nahi gabe. Eta... isiltasuna dirudi. Eta sosegua da. Hasi nintekeen hortik. Orain, poltsaz inguratuta nago. Eta izugarritzko lana jarri diot nire buruari, kasu egin dizudan bakoitzean bezala: orain, desordena guztia itzuli behar dut bere lekura. Ezer ez zegoen soberan. ●



ADUR

## MOTZEAN

**Koldobika Jauregi Alkizako eskultorea zendu da, 64 urterekin bihotzekoak jota. Hala nola Ur-mara museoaren sortzaileetako bat, Thoreau espazioaren sorreran aritua eta Dantza filmean lan egindakoa, askotariko diziplina artistikoetan aritu zen eta sona handia zuen bai Euskal Herrian, bai nazioartean.**

**Gasteiz Antzokia kudeatzen duen Lazarraga kultur elkartearen eta Gasteizko Udalaren arteko akordioari esker, antzokiak ateak zabaldu ahal izango ditu laster.**

**Larrahe jainko baskoiari eskainitako aldare bat aurkitu dute Aranzadiko ikerlariak, Larunben. I. mendeko harrizko pieza bat da, eta Baskoieraren idatzizko beste lekukotasun bat.**

**Epaiketa aurretik akordioa lortuta, hiru urte eta bederatzita hilabeteko espetxe zigorra jaso du 2019an ezker abertzaleko familia baten etxearen aurka tiro egin zuen polizia ohiak.**

**Zeraingo Aranburu baserriko jabeak atxilotu dituzte, langileak esplotatzeagatik. Idiazabal gazta egiteko, langileak kontraturik gabe zeuzkaten, 7 eguneko lanaldi luzeetan.**



## Jolastu herria



ULA IRURETAGOIENA

**K**alearen eszena irudiz beterik dagoen leku bat bezala agertzen zaigu, hitz eta irudiz osaturik, informazio, iragarpen, publizitate eta mezuekin batera paseatzen baitugu egunero eta uneoro. Kalea euskarri fisiko boteretsua izanik, ikusezko kulturaren sustatzaile izateko, eta izaera hau probesten dute hainbat kaleko festibalek, Getxophotok bezalaxe, aktualitatean dagoena, ekaineko hilabetea eta herrigunea bere egiten dituelako. Nazioarteko deialdira aurkeztutako argazki eta bideo lanen hautaketa baten ondoren, lanok pantailatik kaleko plano fisikora ekarri eta formatu makroan inprimatzen dira, hainbat ekipamendu publikoren fatxadak trabestituz. Kaleko festibala izaki, fatxadetan eta beste arkitekturetan agertzearekin batera, artisten lanen barne-tripak ezagutzeko bisita gidatuak antolatzen dira, denda eta tabernetan presente daude eta enkontruak proposatzen dituzte. Kalea egiten da.

Maria Ptqk-ren komisariorazapean, iazko deialdiaren “pause” gaiaren segidan, aurtin “play” hitzaren jolas-jokoetan aritu dira hausnarketan. Egutegian ematen eta egiten diogu play (ekintza bat), eta ingelerazko erabileran “musika jolasten da”, “rol bat jolasten dugu” eta jolasa ezagutza eskuratzeko bide boteretsua da, txiki eta nagusiontzat, jostatuz serioak diren gauzetarantzko hurbilketa bat egiten dugu, non intuizioak, sinbolismoak eta magiak parte hartzeko irekita gauden. Ikusgai diren lan guztien artean, espazio publikoaren hausnarketara Hayahisa Tomiyasuk egindako ekarpena azpimarratuko nuke: kaleko ping-pong mahai bati kaletarrek ematen dioten funtzio aniztasunaren argazki-sorta bat aurkeztu du, eta bat bera ere ez da ping-ponga. Jolasak espazio publikoan plaza publiko papera hartzeko balioak ohartarazten digu, jolasa traktore bilakatzen baita jendartea erakartzeko eta zerbitzu bat emateko. Aurrez ezarritako jolas-arauak haustean, kalean jokatzeko ari diren beste gai publiko askoren hirigintza-tresna bilakatzen da jolasaren lurraldea! ●



## Arduraz eta zentzutasunez

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**M**acronek egin du bere prentsaurrekoa, ekainaren 12an, Legebiltzarrerako hauteskondeei buruzko irakurketa plazaratzeko. Eskuin muturra eta ezker muturra biak berdin-berdin lanjerosak direla errepikatzeke uena izan du, batik bat. Bata eta bestea kritikatu baditu ere, eskuin muturrekoen xarmatzeko ideiak zabaldu ditu: segurtasun eta larderia gehiago, migrazio gutiago eta herritarrek plazaraturiko kexua nahiko entzun ez izanaren auto-kritika. Badaukielako bozketen bigarren itzulira pasatzeko eta hor gailentzeko eskuinekoen botoak ezinbestekoak izan dituela. Eta bigarren itzulian RNA ukanez gero parean, eskuin muturrari bidea mozteko beharraren argumentu erraza luzatuko die iraindu dituen ezkerrekoiei. Ezkerreko Fronte Popularrari dagokionez, “guztiarentzat desadostasunaren direnen eta adostasunik lortu ezinean ariko direnen” arteko “aliantza lotsagarria” delako: “antisemitismoa”, “komunitarismoa”, “utzi-keria”, “antiparlamentarismoa” horra zer den Macronentzat Fronte Popularra.

Anartean, lortu du ezkerreko Europako hauteskunde gauera arte ezin irudikatua zirudien batasuna. Ariketa zinez zaila, bakoitzaren iritzi eta postura sendoak, botere gosea zein egoa dituztelako bidean, traban. Faxistak boterera heltzeko arrisku erreala adostasuna lehenestera eramanez. Izan dira asteburuan lehen zatiketa arriskuak, baina gaina hartu diote –oraingoz–. Ekainaren 14an egin dute prentsaurrekoa, Macronenaren antipodan, koloretsua, jendetsua eta aldaketarako engaiamenduz betea: “Bizitzak aldatzera goaz” eta “beldurra esperantzaz ordezkatzera goaz, siderazioa eraikuntzaz ordezkatzera goaz”. Guztira 150 bat neurri adostu dituzte –baita eskuinak onura ateratzea espero zuten Palestinako zein Ukrainako gerrei buruz ere–. Herritarrekin eramanez nahi duten frontea –baita gobernu ere– dela diote eta horren erakusleio izan da Greenpeaceko militante bati eta enpresa itxi izanagatik lana galdu berri duen langile sindikalista bati hitza eman izana.

Ipar Euskal Herrirako hiru hautagaietatik bat EH Bai koalizio abertzalekoa izatea bera da aldaketa sakona. Peio Dufau izanen da seigarren hautesbarrutiko hautagaia, eta Alain Iriart bosgarrenean ordezko. Jakina da Frantziako ezkerrean ere jakobinismoa eta abertzaleen eta euskaltzaleen aldarrien benetako kontsiderazio eza ohikoa dutela. Batez ere Parisen. Horregatik da bereziki esanguratsua EH Bai hor kokatzeko hautua. Bai, eskuin muturraren arrisku erreala aitzezinez, arduraz eta zentzutasunez jokatzeko dabil ezkerria eta bada azpimarragarria. ●

## 4

bandera beltz banatu ditu Ekologistak Martxan elkarteak Hego Euskal Herriko kostaldean, kutsaduragatik eta kudeaketa txarragatik: Urdaibaiko Guggenheim, Donostiako Santa Klara uhartea, Getariako makrogranja eta Leioako Lamiakoko padura.

## 7

urte dira Gaintxurizketan tunela zulatzen hasi zirenetik. Orduetik, etengabeak izan dira AHTko obrek Renferen tren zerbitzuan eragindako murrizketak eta kalteak. Udarako ere zerbitzu etenaldiak iragarri dituzte.

## 523

kilometro izango ditu Txina, Kirgizistan eta Uzbekistan lotuko dituen trenbide faraonikoak. Oztopo geografiko itzelak gaindituta, eraikuntzalanak udazkenean hasiko dira, dirudienez.

## “Elkarrizketak abiatzeko eta konfiantza eraikitzeko ariketa egin nahi genuke”

### MUGIMENDU SOZIALISTA

Azken asteetan txosnen harira eztabaidaren erdian egon diren Gasteizko GKS eta Etxebizitza Sindikatuak, eta Bilboko Luberri konpartsak prentsaurreko bateratua eman dute.

2024-06-13



## “DONOSTIA OSOA TENTSIO HANDIKO EREMUA DA, ALOKAIJUAREN PREZIOAGATIK ETA ETXEBIZITZA TURISTIKO ETA HOTELEN UGARITZEAGATIK”

### KALERATZEAK STOP PLATAFORMA

IRUTXULOKO HITZA (2024-06-13)

## “Hatortxu amaituko da, baina elkartasunaren eta auzolanaren bidean gure aletxoak jartzen jarraituko dugu”

### ARITZ COLIO

Hatortxuko antolakuntzako kidea.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-06-12)





## TEKNOLOGIA

# Kapitalismo xurgatzailea



DIANA FRANCO

**E**z dakit beste espezie batzuetan kapitalismoa bezalako sistemarik existitzen den. Sistema honetan, gure espezieko pertsona batzuen bizi indarra beste batzuen bizitzak sostengatzera bideratzen da. Kapitalismoan pentsatzen dudanean, Dragoi Bolako Freezer-en eztena datorkit burura, gupida barik aurrean duen gutzia xurgatzen. Mundu bat zeinetan onuraduna den bakarra sistema bera den (gizakiok sortu dugun munstro hori). Batzuetan, kapitalismoak bizitza propioa duela iruditzen zait, eta gu, gizakiok, hain gaude menderatuak, ezin dugula irudikatu beste errealtaterik, eta horregatik, sinbionte (bi organismo bizidun desberdinen arteko erlazio bat, non biek, edo gutxienez bietako batek, onurak jasotzen dituen) bilakatu garela kapitalismoarekin batera.

Kapitalismoarekin osatzen dugun sinbionte sintetiko honen botere xurgatzailea areagotzen joan da digitalizazioarekin. Baina munstroak hazten jarraitu nahi du eta kapitalismoa irautearen zaintzaileak behartuta daude denbora gutzian sistema elikatzeko bide berriak asmatzera. Badirudi adimen artifizialak xurgapen ahalmena areagotzen duela, eta burbuila batean aurkitzen gara gaur egun, non inbertsio handiak egiten ari diren, baina ez dira beti ondo ateratzen. Adibidez, jakin dugu Amazon denda fisiko automatizatuen teknologiaren atzean Indiako mila pertsona zeudela kamera bidez erosleak zelatatzen eta erosketen kalkuluak egiten, adimen artifizialak ezin baitu momentuz lan hori modu autonomoan egin. Kapitalismoaren zaintzaileek pertsonak kontratuko dituzte, pertsonak ordezkatzeko teknologia garestia edo ezinezkoa suertatzen zaien bitartean. Gauza da, zein geruzara arte xurgatu ditzake kapitalismoak pertsonon gaitasunak? Nire ustez, gaitasun handia du, baina bizitza ez da atzean gelditzen, eta pertsonak ez gara kapitalismoak singularitate puntu batera heltzeko behar dituen osagaiak; gure izaera baldintzatzen duten aldagai eta konplexutasun larregi ditugu gizakiok, tartean irudimena. Sistemaren barruan, beraz, hasieratik birusa du sartuta kapitalismoak. ●

## NAZIOARTEA



## 120 milioi errefuxiatu munduan

AXIER LOPEZ

**E**rrefuxiatuen edo bortxaz tokialdatutakoen kopuruak gora egiten jarraitzen du, galgarik gabe. Aurtengo lehen lau hilabeteetan, 117,3 milioi pertsona dira, ACNUR-en urteko txostenaren arabera. Iheslarietako NBERen erakundeak igoera lotu du gerren intentsitatea handitu izanarekin. Azpimarra berezia jarri dute Ukrainan, Gazan eta 2023ko apirilean piztu zen Sudango gerra zibilean, ahaztu barik aspalditik egoera gordina sufritzen ari diren Kongoko Errepublikako Demokratikoa, Myanmar, Afganistan edota Siria. 8,8 milioi pertsona gehiagok bizitokia utzi behar izan du 2022ko amaieran baino. 2012tik hona kopuru hori hazi besterik ez da egin.

Europar neofaxismoa goraka dugu, gurera bizitza hobearen bila etortzen diren pertsonen aurkako mezua oinarri hartuta. Masiboa dela diote, beldurra hedatu nahian. Bada, ACNUR-en txostenaren arabera, errefuxiatuen eta nazioarteko babesa behar duten pertsonen %75 errenta baxu eta ertaineko herrialdeetan jasotzen ari dira. Hau da, iragan komuna partekatzen duten herrialdeetan, gehien-gehienak Europako kolonia izandakoak. Gainera, errefuxiatuen %69k inguruko herrialdeetara jotzen du, bai urrunago joateko gaitasun ekonomikorik ez dutelako, bai etorkizun hurbilean berriz etxera itzultzeko itxaropena dutelako.

2023an, errefuxiatu guztien %73 Afganistan, Siria, Venezuela, Ukrai-

na eta Sudangoak ziren. Mendebalde kapitalistak zuzenean esku hartu du bost herrialde horietako egoera politiko eta ekonomikoan, baita indarke-riaren bidez ere.

### BIEN BITARTEAN G7-N...

G7ko liderrek –Kanadak, Frantziak, Alemaniak, Italiak, Japoniak, Erresuma Batuak eta AEBek osatutako taldea, baita de facto kide den Europar Batasunak ere– gailurra egin dute Suitsan. Irigarri duten lehen erabakia izan da Ukrainara 46.000 milioi bat euro bideratzea, Errusiari Europar lapurtutako aktiboei sortutako interesetatik datozenak. Hau da, armagintzarako eta gerrarako diru gehiago bidaliko dute, errefuxiatuak are gehiago sor daitezela. "Ukrainan bakea lortzeko bidea nazioarteko zuzenbidean eta, bereziki, Nazio Batuen Gutunean oinarrituta egin behar da", adierazi dute ohar batean zazpi buruzagi kapitalistek. Hau da, "bakea lortzeko" armagintzarako gastua handitzearekin batera Ukrainako gerra krudel eta bidegabea are gehiago piztea erabaki dute. Horretarako "nazioarteko zuzenbidearen" izenean mintzo dira, G7koek Ekialde Hurbilean duten bazkide nagusia izazko urritik Gazan egiten ari den genozidioa justifikatzeko urratu duten araudi bera. NDFren Zuzendari Orokor ohi Rodrigo Ratok esango zukeen moduan, "hau ez da arpillatzea, hau merkatua da, lagun". ●

# Donostiako autobus gidari baten jarrera euskarafobia salatu dute

 MANEX USARRALDE GARMENDIA

**H**erriar batek salatu du pasa den maiatzaren 2an Donostiako autobus gidari batek bere hizkuntza eskubideak urratu zituela eta horrez gain erantzun euskarafobia bota ziola. Gertakari horren berri Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eman du. ARGIAk pertsona horrekin hitz egin du, zer gertatu zen jakiteko.

Ostegun bateko 18:25ak ziren. Familia bat, bi ume txikirekin, Dbus konpainiaren 26 zenbakidun autobusa hartzeko zain zegoen Urbieta kalean. Egun euritsua zen, eta haurrak aulki banatan zeuzkatenez, autobusa heldu zenean atea irekitzeko eskatu zion I. Y.-k gidariari. Lehenengo euskaraz eskatu zion, kontatu duenez ("Kaixo, barkatu, atzeko atea ireki dezakezu, mesedez?"). Lehenaldi horretan gidariak keinu egin zion ez ziola entzun eta irratia bolumena jaitsi zuen. Bigarrenez errepikatu zuen: "Atzeko atea ireki dezakezu, mesedez?". Honako honetan, gidariaren erantzuna, aurpegi txarrekin, "no te entiendo" (ez dizut ulertzen) izan zen. Hirugarren al-

**I. Y.-k gidariari esan zion hasieratik errespetuz eskatu ziola, eta hizkuntza ulertzeko arazoa izateak ez ziola arrazoirik ematen berari horrela hitz egiteko**

diz, gaztelaniaz eskatu behar izan zuen I. Y.-k, eta gidariak "harrokeriaz" erantzun zion: "Ahora sí, habérmelo pedido bien desde el principio" (Oraingoan bai, hasieratik ondo eskatzea besterik ez zenuen).

Berak hasieratik euskaraz eta "errespetuz" eskatu ziola erantzun zion I. Y.-k, eta hizkuntza ulertzeko arazoa izateak ez ziola arrazoirik ematen berari horrela hitz egiteko. "Gidariak harro jarraitu zuen berean", salatu du. Orduan, autobusera igo zen eta I. Y.-k oroitzen du "oso oso haserre" jaitsi zela autobusetik.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak salaketa jarri zuen. Ez da lehen aldia Donostiako autobus zerbitzuan halako urraketak gertatzen direla, Behatokiaren informazioaren arabera.

## "HIZKUNTZAREKIKO BETEBEHARRAK EZ DIRA ZEHAZTEN"

"Urte urte ikusten dugu herritarrei ematen zaien zuzeneko arreta edo zerbitzuen inguruan urraketa asko ematen direla eta erakunde horiek barkamena eskatu arren, urraketak berriz errepikatzen dituztela". Hala salatu du Hizkuntza Eskubideen Behatokiako zuzendari Agurne Gaubekak. Urraketa mota horiek, lanpostuetan euskararen ezagutza ezaren ondorio direla dio. Horrez gain, kritikatu du lanpostu horietan ari diren pertsonen ez zaizkiela herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko jarraibideak ematen. "Horregatik, herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkienean langile horiei, bueltan erantzun txarrak eta desgokiak jasotzen dituzte". Urraketa horiek hizkuntza eskubideekiko lege betebeharrak dauden lekuetan ere gertatzen direla dio, eta Behatokitik uste dute bereziki zaindu behar direla azpikontratatuak zerbitzuak. "Askotan horietan ezartzen diren kontratu eta klausuletan hizkuntzarekiko betebeharrak ez dira zehazten".

Hizkuntza Eskubideen Behatokia Euskalgintzako Kontseiluak sustatu eta bideratu duen fundazioa da. Hizkuntza-eskubideen urraketan aurrean, euskaraz bizi nahi duten herritarrei oztopoak gaintzen laguntzen die. Euskara Telefonoa izeneko doako zerbitzu bat eskaintzen diete herritarrei, elkarteei eta entitateei, hizkuntza-eskubide urraketak salatzen. ●





# NOLA SAIHESTU DEZAKEGU AIRE KUTSATUAREN MURRIZTEAK DAKARREN BEROTZE EFEKTUA?

Azken urteotan nabaritu den beroketa globalaren emendatzea neurri batean kutsadura murriztearen ondorioa da, hain zuzen, murriztuz doazen aerosol sufredunen isurketek, berez, berotegi efektuaren zati bat konpentsatzen dutelako. Paradoxa horrek egoera berri batean sartzen gaitu, aire garbiagoa dugu baina azkarrago berotzen den atmosferan. Nola jarraitu aire garbia arnasten, klima desoreka areagotu gabe?

 NICOLAS GOÑI

**B**eharbada entzun edo sare sozial batean irakurri duzue, letrorkatzen diren hainbat titular katastrofikoren artean: berotze globalaren abiadura emendatu da azken urteotan. Hori seinale txarra da, gure egokitzapen planak zalantzan ezartzeaz gain –zenbat denbora gelditzen zaigu gauza gehiegi gaindiezin bihurtu arte?–, isurketen murrizketa abiadura emendatza behartzen gaituelako.

1970etik 2014ra berotzearen joera hamarkadako 0,18 gradukoa zen. Alta, 2015etik aurrerako tenperaturak nabarmen altuagoak izan dira –alde handiena 2023an ikusten dugula, eta bigarren handiena 2015-2016an–. Bi une horiek elementu amankomuna dute: *El Niño* deituriko fenomenoak. Baina lehen ere *El Niño* sasoiak izan ziren, eta gaur egun ere bizi dugu bat, ez dena bereziki indartsua. Ez du horrek bakarrik berotze joera azkartzen. Berotzearen azelerazio honen oinarriak ez dira guziz argiak, edo hobe erranik, faktore bat baino gehiago bada eta bakoitzaren eragina zehazki aztertzea da oraindik.

James Hansen klimatologoa da 1980ko hamarkadan berotzeari buruz alarma jo zuen lehenetakoa. Azelerazio hori aztertu zuen iazko azaroan talde handi batekin argitaraturiko *Global warming in the pipeline* (Berotze globala proiektatua) artikuluan. Urtarrilean argitaratu duen lan horri buruzko ohar batean faktore na-

gusitzat jotzen du planetaren iluntzea. Horrek ez du erran nahi gauak luzatu zaizkigula, baizik eta planetak ez dituela lehen bezala eguzki izpiak espazioan islatzen, eta beraz eguzki irradiazio gehiago sartzen zaigula lur azalera eta ozeanora. Bertzela erranik, azken urteotan Lurrak albedo galdu du. Hain urte gutitan albedo galdu izana mendi eta poloetako izotza azkarrago urtu izanari lotua da, baina ez bakarrik: airearen kalitatea hobetzeko hartu diren neurriak dira nagusiki oinarrian. Airearen kutsadura murriztuta, planeta ilundu eta gehiago berotu dugu. Nola liteke hori?

## SUFREDUN AEROSOLEN ONURAK ETA KALTEAK

Atmosferan badaude aerosol izeneko partikula txikiak, mikrometro batzukoak, airean zintzilik irauten dutenak. Aerosol iturri naturalak dira basamortuen hautsak edo gandua, itsas langarrak, sumendien eta oihan suteen hautsak. Aerosolak sortzen dituzte motorrek eta lantegiek ere, batez ere erregai "zikinak" erabiliz gero –hau da, sufre asko duen gasoila edo ikatza–. Sufredun aerosolek ez dituzte atmosferan izpi infragorriak metatzen –berotegi efektuko gasek egiten dute hori–; alderantziz, eguzkitik datozen izpien zati bat islatuz Lurraren albedo emendatzen dute. Horren bitartez, berotegi efektuko gasen eraginaren zati bat –heren bat arte–

konpentsatzen zuten 2014a arte, hau da, Txinak airearen kalitateari buruzko neurriak hartu arte.

Kontua da aerosolek ez dutela atmosferaren berotasun orekan bakarrik eragiten: behe atmosfera egunero arnasten dugunon osasuna ere kaltetzen digute eskualde industrialetan. Herrialde industrializatueta *smog* kutsadura fenomeno oso ohikoa izan da XIX. mendetik aurrera. Nahiz eta denboran zehar egoera hobetu, 2010eko hamarkadan oraindik Europar Batasunean urtero 300.000 pertsona airearen kutsadurarengatik hiltzen zirela kalkulatu da –jakinda Europako egoera ez dela munduko txarrena–.

Mundu mailan, MOEren arabera lau milioi pertsona hiltzen dira urtero aire kutsadurari loturiko minbiziz, birikado edo bihotz-eritasunez. Txinak zuen egoera okerrera mende hasieran, alde batetik, "munduko lantegia" bihurtu zelako –mendebalde globaleko kutsaduraren zati bat hara deslokalizatuz–, eta bertzaldetik, aire kutsadurari buruzko arau oso ahulak zituztelako –horregatik ere zen merkeagoa Txinan ekoiztea–. Azken faktore hori nabarmen aldatu da 2013tik aurrera, Xi Jinpinggek industria astunetan kontrol zorrotzagoak agindu dituenetik. Txinako Ozeano Unibertsitateko Xiao-Tong Zheng meteorologoaren arabera, hamarkadan aerosol isurketak %70 gutitu dira eta sufre dioxido isurketak %88.



**'SMOG' EDO KUTSADURA LAINOA.** 2013ko urrian smog gertakari handia gertatu zen Txinako ipar-ekialdean. Airearen kalitatearen alde urte hartan harturiko neurriek esker kutsadura nabarmen jaitsi da Txinan, nahigabeko eraginak ondorioztatuz kliman.

WIKIMEDIA

## ORDUAN ZER, KUTSADURA LEHEN BEZALA UTZI BEHAR OTE DA?

Atsotitz txinatarrak dio tximeleta baten hegalean mugimendua munduaren beste muturrean sentitu daitekeela. Kasu honetan, Txinan aerosol gutiago isurtzeak bero uhinak sortu ditu Ozeano Barearen ipar-ekialdean. Hala erakutsi du Zhengek bere taldearekin martxoan argitaraturiko *Atmosphere teleconnections from abatement of China aerosol emissions exacerbate Northeast Pacific warm blob events* (Txinako aerosol isurketen murrizketen telekonexio atmosferikoek Ozeano Barearen ipar-ekialdean itsas bero uhin gertaerak indartzen dituzte) lanean. Eguzki izpiei bidea irekitzeaz gain, aire presioak ere eraldatu zituen, Aleutiar depresioa sakondu eta hegora mugituta, horrek

ekialderago haizeak moteldu zituen eta horren bitartez itsas azalaren tenperatura gehiago emendatu zen.

Zenbat horrelako telekonexio gehiago munduan? Ozeano Baretik harago, munduko zamaontzien erregaiei buruzko 2020ko arau berriek berotzea indartu dutela erakutsi du AEBetako Maryland estatuko Goddard Space Flight Center erakundearen *Abrupt reduction in shipping emission as an inadvertent geoengineering termination shock produces substantial radiative warming* (Zamaontzi isurketetan murrizketa zorrotzak beroketa erradiatibo esanguratsua sortzen du, nahigabeko geoingeniaritzazko talka gisan) ikerketak. Ziur "nahigabeko geoingeniaritza" horrek batzuei ideiak bururazazi dizkietela.

Airearen kutsadurak hiltzen jarraitzen du. Oraingoz eskualde kutsatuenak Hego Asia eta Afrika dira, eta ez da kasualitatea eskualde horietara bidaltzen direla munduko zabor toxikoenetarikoak (zabor elektronikoa kasu). Airearen kalitateari dagokionez, munduko eskualde gero eta gehiagok arauak ezartzen dituzte eta joera horiek ez dira, naski, atzera itzuliko. Orain, Afrikan eta Hego Asian pairatzen duten injustizia konpondu behar da. Posible da aire garbiagoa arnastea eta beroketa globala murriztea. Horretarako badago konponbide irisgarri bat: metano isurketak moztea, batez ere erregai fosilen erazte eta garraiatze azpiegituretatik. Txarrena saihesteko ez gabilta beranduegi, baina horretarako bai ala bai eman beharreko urratsa dugu hori. ●



**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)





**AHLEM**



# Elena Quispe Tincuta eta Cecilia Llusco Alaña

TXOLITA ESKALATZAILEAK



## BIZITZAN DENA EZIN DA GAILURRA IZAN



Maiatzean Elena Quispe Tincuta (El Alto, La Paz, Bolivia, 1998) eta Cecilia Llusco Alaña (El Alto, La Paz, Bolivia, 1985) txolita eskalataileak Hego Euskal Herriko hiriburuetan izan ziren *Cholitas* dokumentala aurkezten Alboan, Entreculturas eta Oxfam GKEen ekimenez. 2019an estreinatu zuten Aconcagua mendiko igoera kontatzen duen pelikula,

baina pandemiarengatik aurkezpen bira atzeratu behar izan zuten. Emakume indigenen ahalduntzea, aimara kulturaren defentsa eta naturarekiko errespetua dira Boliviako txolitek zabaldu nahi dituzten mezu indartsuak, beren pollerak (gonak) eta agua-yoak (oihalezko fardel koloretsuak) soinean dituztela mendian gora. Harro bezain apal.

 REYES ILINTXETA  ZOE MARTIKORENA / ARGIA CC BY-SA

### Zer moduz doaz aurkezpenak?

**Elena Quispe:** Oraingo honetan oso ongi. 2018 eta 2019 artean grabatu genuen dokumentala Jaime Murciego madrildarraren eta Pablo Iraburu iruindarraren zuzendaritzapean. 2019an filmeko bost protagonistak Bilbon izan ginen eta hurrengo urtean bi kide Madrileran joan ginen aurkezpen bira bati ekiteko asmoz, baina pandemiarengatik saio bakarra eginda itzuli behar izan genuen.

Orain oso pozik gaude pelikula aurkezteko aukera dugulako Europar. Hiri

batzuk ari gara ezagutzen eta esperientzia oso politak ari gara bizitzen. Oso pozik sentitzen gara jende askok eskatu digulako etortzea honetaz hitz egiteko. Film hau mugarri bat da. Emakume indigena aimara eta nekazariok pairatzen dugun bazterkeriaren aurrean, geure buruari mugarik jarri behar ez diogula erakutsi nahi izan dugu. Helburu bat ezartzen dugunean lortu egiten dugu eta modu horretara joaten gara gailurrak konkistatzen. Gu ez gara gure jatorriaz lotsatzen eta garen bezala erakusten gara. Gure identitateaz harro gaude.

**Cecilia Llusco:** Guretzat harro egoteko modukoa da emakume nekazari indigenen pollera gona janztea. Guk aimara hitz egiten dugu eta ez gara lotsatzen. Polleradun emakumeok mendiak igotzera joan gaitzek eta gonek ez digutela trabarik egiten erakusten ari gara. Batzuk kritikatu gaituzte horrela joateagatik eta beste batzuek esaten zuten elurrik eta euririk ez zuela egingo gure erruagatik. Ez zaie gustatzen emakumeok gizonen gauza berdina egitea. Hala ere, belarriak estali ditugu eta aurrera jarraitu dugu.





### 2015ean eratu zenuten lehen txoliten taldea. Nolako izan zen hasiera hura?

**Llusco:** Txolita taldeko kideak herri desberdinetakoak gara. Elkar ezagutu genuen denak turismoaren inguruan ari ginelako lanean. 6.088 metroko altuera duen Huayna Potosi izan zen gure lehen gailurra. El Alto, gure bizilekutik gertu dagoen mendirik garaiena da. Hamaita emakume joan ginen eta denok lortu genuen. Orduan erabaki genuen jarraitu behar genuela eta hala egin dugu. Gerotik Acotango (6.050 m), Parinacota (6.350 m), Pomarape (6.650 m), Illimani (6.462 m) eta Argentinako Aconcagua (6.960 m) Hego Amerikako tontorrik garaiena, igotitu dugu.

### Bazterkeriaren aurka borrokatzen duzue. Nolako da bazterkeria hori?

**Quispe:** Lehen matxismo handia zegoen gure herrietan eta horren aurka borrokatu nahi genuen. Polleradun emakumeek ezin zuten institutuan ikasi, edota enpresa batzuetan, bankuetan edo administrazioan lan egin. Ez ginen ongi etorriak izaten. Horregatik esan genuen "aski da". Bortizkeriaren eta feminizidioaren aurrean aski dela aldarrikatu nahi genuen. Orain gauzak aldatzen doaz poliki-poliki eta jada polleradun emakumeak toki askotan ikus daitezke. Orain gauza asko egin dezakegu.

**Llusco:** Lehen bizitza oso tristea zen emakumeentzat. Ezin genuen futbolearen aritu, adibidez, eta niri asko gustatzen zait. "Zuek sukaldetan kozinatzen eta garbitzen eta amari laguntzen egon behar duzue" esaten ziguten eta egoera horrek indar handiagoa eman digu txoliten tal-

dean aritzeko, bazterkeria amaitu behar dugulako.

Batzuek kritikatu gaituzte *txolita* normalean ezkondu gabeko neska gazte txoei esaten zaielako, baina guk esaten diegu izena gustatzen zaigula eta nahi duguna izan gaitzkeela.

### Zuen inguruko gizonek zer esaten dizute?

**Llusco:** Gure senarrek hasieratik lagundu ziguten. Esaten ziguten "zuek indartuak zarete, nekazariak zarete, ordu luzez ibiltzen zarete muinoak igoz eta jaitsiz eta lor dezakezue Hego Amerikako mendirik altuena, zergatik ez?".

**Quispe:** Hori egin dugu eta orain gure ametsak betetzen jarraituko dugu. Horregatik esaten diegu haiek hurrekin gelditzeko eta etxea zaintzeko guk mendira joan behar dugulako eta hala egiten dute.

### Zer aurkitzen duzue mendi tontorretan?

**Llusco:** Oso polita da hor egotea. Han sentitzen den askatasuna eta isiltasuna, aire garbia, ikuspegi ederra... asko gozatzen dugu. Niri asko gustatzen zait mendia eta han bizi ninteke beti. Ez dut hirian egon nahi. Beti zama garraiolaria izan naiz turistentzat, eta orain oso ederra izan da emakume talde bat osatzea denak batera mendiak igotzeko.

### Zein da zuen ekimenaren eragina, zuen ustez?

**Quispe:** Txoliten kolektiboaren lanari esker emakume batzuk askatzen ari dira. Oso garrantzitsua da, adibidez, haurrak haztea beren ametsak betetzen

ahal dituztela sinetsiz. Oso pozgarria da guretzat. Taldean irakasle bat dago eta hori da hurrei, neska eta mutileri, transmititzen ari zaien ideia: gure ametsak betetzeko aukera dugula. Haiei bezala, munduko pertsona guztiei helarazi nahi diegu mezu hori. Guk mundu osoari ematen diegu gure mezua.

**Llusco:** Hemen, Europan eskerrak eman dizkigute etsenplu hau emateagatik. Gu orain ahalduntzen ari gara asko eta ikusten dugu aldaketa txikiak gertatzen ari direla. Bolivian ideia hauek pixka bat zabaltzen ari direla nabari da.



## MENDIA DENONTZAT

Quispe: Guk beti esan dugu mendia denontzat dela. Nire familiak beti lan egin izan du turismoan. Gure eskualdea, El Alto, oso turistikoa da eta betidanik igotzeko nahi izan dut mendietara. Galdetzen nion neure buruari: "Zergatik itzultzen dira turistak horren pozik? Zer egongo ote da gailurrean? Urrea agian?" Baina emakume polleradunak ezin ginen igotzeko. Ez genuen ekipamendurik ere. Guretzat oso zaila zen botak aurkitzea, adibidez, gure oinak oso txikiak direlako. Nik 33 zenbakia dut eta botetan 36, eta asko borrokatu behar izan dugu materiala lortzeko. Baina mendiak deitzen zaitu, naturak deitzen zaitu, eta "hemen nago, zure zain" esaten dizu.

## UMILTASUNETIK

Llusco: Gure borroka umiltasunez eta errespetuz egiten dugu. Gure amatek esaten ziguten "ez duzu errebelde izan behar eta umiltasunarekin gauza asko lortu ahal izango duzu" eta guk hala egiten dugu, adinekoen esanak bete behar direlako, errespetuz. Mendien bezala ibiltzen gara bizitzan: poliki, urrats ez urrats eta errespetuz. Horregatik eskalatzen hasi baino lehen mendiari baimena eskatzen diegu.





Jende asko aho zabalik gelditu da lortzen ari garena ezagutzearan. Filma ikus-tean esaten digute emakume ausartak garela eta emakume indigena aimarak ordezkatzeko ditugula. Gu oso harro gaude, gure emakumeak eta munduko emakume guztien izenean, ausartak eta indartsuak garela eta geure buruari mugarik ez diogula jartzen erakusten ari garelako.

#### Orain zer helburu duzue?

**Quispe:** Emozio eta gogo handiz ari gara espedizio bat prestatzen 8.848 metroko altuera duen Everest, munduko mendi altuena, konkistatzeko. Guretzat munduko sabaira iristea gure identitatea eramanez, harro egoteko modukoa da. Gure pollerak eta Boliviako bandera eraman nahi ditugu. Bolivia maite dugu, nahiz eta gure gobernuaren sostengurik ez dugun inoiz jaso.

Jainkoaren laguntzarekin nahi genuke 2025ean joan eta polita izango zen beste dokumental bat egitea: "Txolitat Everestean". Horretarako lanean jarraitu behar dugu gogor, baina amets egitea ez da ezer kostatzen.

#### Nola ari zarete dirua biltzen?

**Llusco:** Txolita talde bat baino gehiago dago. Kolektibo bat gara. Ona da egotea hainbat txolita talde.

Talde bat Everestera joateko espedizioa ari da prestatzen eta beste batean

lanean ari gara lehenbizikoz beste zortzimilako bat egiteko. Asegurua oso garestia da eta hori gabe enpresek ez dute diru-laguntzarik eman nahi, horregatik ari gara dirua biltzen.

Ametsetan hasita pentsatzen dugu "eta zergatik ez zortzimilako guztiak?". Guretzat plazer handia litzateke munduko zortzimilako guztiak igo dituzten emakumeak ezagutzea. Oso pozgarria litzateke Edurne Pasaban, emakume handi hori ezagutzea. Nik ezagutu nahi nuke, eta harekin solas egin, eta zoriondu.

**Quispe:** Gure taldean, adibidez, Everestera joateko dirua biltzen ari gara Instagram bidez. Enpresa batzuek ere laguntzen digute. Milioi erdi dolarreko aurrekontua dugu hara joateko eta lau txolita baino ez gara joango, edo agian baten bat gehiago diru aski lortuz gero. Orain arte Europa, AEB, Txile eta Peruko jende askoren laguntza jasotzen ari gara eta poliki-poliki aurrera goaz.

#### Zertan datza mendia igotzen hasi aurretik egiten duzuen errituala?

**Quispe:** Mendi bat igotzen dugunean beti errespetuz joaten gara. Gure amona-aitonek beti esaten digute Pachamama (Ama Lurra) dela jatekoa ematen diguna eta Achachilak (ispiritu babesleak) mendiak direla. Haiei baimena eta babesa eskatu behar dizkiegu. Horregatik beti eramaten ditugu alkohola eta koka

hostoak eta mendi bat igo baino lehen baimena eskatzen diegu zailtasun eta arazorik gabe igotzeko. Zerbait ordaintzea bezalakoa da. Mendiarekin dugun zor bat kitatzen ariko bagina bezala.

#### Gaizki tratatzen dugu natura?

**Llusco:** Oso gaiztoak gara eta ingurumena kutsatzen dugu etengabe. Guk beti esaten dugu mendian ez dela zaborrik bota behar, adibidez. Bolivian askotan aurkitzen dugu zikinkeria ugari, gaizki ohituta gaudelako. Hemen, Europan, ikusi dudana da kaleak eta tokiak oso garbi daudela, eta zaborra botatzen dela zabor-ontzietan ongi berezitua. Bidaia batetik Boliviara itzultzen naizenean beti esaten diet beste herrialde batzuetan nola jokatzeko duten, nola zaintzeko duten ingurumena eta nola ez duten zaborrik uzten kalean. Gu oso txarrak gara. Mendian zaborra botatzearen aurkakoa naiz eta zerbait ikusten dudanean biltzen dut, nahiz eta fardel pisutsua eraman bizkarrean. Denok egin dezakegu zerbait ingurumenaren alde.

Gure errituetan, adibidez, urtarrilean eta abuztuan eskaintzak egiten dizkiogu Pachamamari suak piztuz, eta saiatzeko gara egur gutxi erretzen, baina ez plastikoa edo arroparik, airea ez kutsatzearen, hain zuzen ere.

Orain klima aldaketaren ondorioz nabari da gure mendietan elur askoz gu-



txiagi dagoela eta honek gure lanean ere eragin handia du, gu goi mendietako gidariak garelako. Elurrik ez badago, zer gertatuko da gurekin? Nik negar egiten dut hori ikustean.

### Nola erabiltzen dituzue koka hostoak?

**Quispe:** Mendia igotzen hasi baino lehen sei bat hosto jartzen ditugu lurrean, harritxo batez tapatuta aireak ez eramateko, eta Achachilei eta Pachamamari baimena eskatzen diegu. Senar-emazteak dira. Pachamama ama da, bera baita jaten ematen diguna. Honez gain, hostoak murtxikatzen ditugu koka medizina oso ona delako altuera-ko gaitzik eta sabeleko minik ez izateko.

### Nolako garrantzia du erritualak zuentzat?

**Llusco:** Batzuetan akatsak egiten ditugu. Federik gabe bazoaz, mendiak ez zaitu ongi hartzen. Ni, adibidez, Aconcaguako gailurrera ez nintzen iritsi eta itzuli behar izan nuen. Agian okertu nintzen eta ez nuen eskaintza ongi egin. Beharbada horregatik ez zidan igotzeko baimenik eman. Hori dena pelikulan agertzea ongi dago, oso mezu egokia



delako: bizitzan dena ezin da gailurra izan. Ni beti lehena izaten naiz gauza guztietan eta irabaztea gustatzen zait, baina ordukoan egokitu zitzaidan buelta ematea. Oso zaila izan zen, oso triste nengoen. Porrota ez zait batere gustatu izan eta orain ikasi dut zer sentitzen den eta zergatik nire bezeroak haserre etortzen diren helburua lortzen ez dutenean. Gailurra zanpatu gabe itzultzea erabaki zaila izan zen, baina nire kideek esan zidaten talde osoaren izenean egingo zutela gailurra. Ez nien kalterik egin nahi, ez nuen neurekoa izan nahi eta horregatik jaitsi nintzen. Elkarri lagundu behar diogu. Txolitak iritsi behar ziren tontorreraino eta nik ez nuen traba izan nahi. Pozik nengoen paisiaz disfrutatzen, eta gainera, "mendia beti egongo da hor" pentsatzen nuen. Handik gutxira beste talde batekin joan eta lortu nuen. Mundu osoko bederatzik emakumez osatutako talde bat zen, esperientzia ederra.

### Nola dago aimara kulturaren transmisioa gaur egun?

**Llusco:** Estereotipo asko ari gara apurtzen, zorionez, eta polleradun emakume asko ikusten dira lehen pentsaezina ziren postuetan administrazio eta zerbitzu batzuetan.

Oso polita da gure ohiturak izatea eta ez ahaztea. Orain badira neska gazte gehiago mendira etorri nahi dutenak eta hau dena ikasi behar dute. Nire alabak, adibidez, fede handia du. 20 urte ditu eta 13 urte zituenetik nirekin eskalaten du. Bera ere pollerarekin joaten da, ni bezala. Bere aitarekin txikitatiki



RIGGO ANTON

hasi zen eskalaten baita izotzean ere, eta orain zortzimilako batera etorri nahi du. Egunen batean aukera iritsiko zaio.

**Quispe:** Aimara hizkuntza eskolan irakasten dute gaztelaniarekin batera, baina idazteko zaila da. Komunikabideetan nolabaiteko presentzia du. Badira polleradun emakume batzuk elkarrizketak egiten hainbat hedabidetan eta oso harro gaude. ●



Koop  
**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen  
mekanizazioan espezialistak



Eztiago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



## Eragin esferak eta soberania

**E**uropako Parlamentuko hauteskunde kanpaina geundela, Iñaki Galdosek *Berria*-n artikulu interesgarria idatzi zuen azalduz EH Bilduk iragarri zuela Hego Euskal Herriak 1986ko erreferendumean NATOrri emaniko ezetza defendatuko zuela Europan. Ondoren, Galdosek herrialde neutraletan eta ezker soberanistetako alderdietan gertaturiko aldaketa pragmatikoak gogora ekarri zituen. 2012an Eskoziako SNP NATOren aurka egotetik aldeko jarrera izatera pasatu zen. Logika horrekin, Galdos prest agertu da txuleta bat jokatzeko balizko euskal errepublikak independentzia lortuko balu, “governatzen duenak gobernatzeko duela (...) NATOk kide izaten jarraituko genukeela txintxo-txintxo”.

Txintxo-txintxo horrek esan nahi du asumitzea gure erabakitzeko eskubidea eta soberania mugatuta daudela: ezin ditugu zenbait erabaki hartu Washingtonen borondatearen aurka, adibidez, NATOtik ateratzea nazioarteko harremanetan autonomia irabazteko. Askotan pentsatzen da sezesioa errazteko bidea dela jatorrizko estatuak dituen nazioarteko aliantzak eta menpekotasunak propio bezala mantentzeko borondatea agertzea.

Kontua da NATOk kideen artean, deskolonizazio prozesuak alde batera utzita, ez dela inoiz independentziarik gertatu. Ez zaude munduko lehenengo aliantza militarrean gero etxean sezesioak pairatzeko. Estatu berrien jaiotzak egintza geopolitikoak dira eta, horregatik, potentzien arteko lehiek zeriku-

Mendebaldearen gainbeheraren eta ahuldadearen seinale da Washingtonek eta Bruselak beraien eragin esferako estatuak motzean lotu nahi izatea

si handia dute. Horrek ez du esan nahi sezesio-prezioa merkatzea ez denik estrategia bat, Euskal Errepublika posibleagoa litzateke baldin eta Europako integrazio prozesua sakonduko balitz demokratizatuz eta federalizatuz. Horrek esan nahiko luke Brusela Washingtonengandik autonomo egitea. Orduan bai, euskal errepublikak independentzia baino desanexio bat lortzeko aukera gehiago izango lituzke EBeko federazioan.

Aipaturiko agertokia ez da erraza. Horregatik, Euskal Errepublika lortzeko bigarren agertoki posiblea ezin da baztertu: Mendebaldearen gainbeherak jarraitzea, sezesioetarako aukerak sortuko dituen anabasa geopolitikoak egon arte. Gainbeheraren eta ahuldadearen seinale da Washingtonek eta Bruselak beraien eragin esferako estatuak mo-



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

tzean lotu nahi izatea, adibidez, nazioarteko harremanetan autonomia nahi duten gobernuen kontra joz. Irakli Kobakhidze-k, Georgiako lehen ministro eta 2022ko Sabino Arana sariaren irabazleak, ondo daki. Ezer gutxirako balio izan die NATOn eta EBn sartzeko helburua konstituziora eramateak. Mendebaldeko herrialde askok antzeko legeak dituzten arren, Kaukasoko estatu txiki horrek hori egitea ez dute gustuko, beraien esku-hartzea herrialdean otopatu dezakeela pentsatzen dutelako. Ondorioz, Mendebaldeko gobernuetako zenbait kidek legearen kontrako manifestazioetan parte hartu dute Tbilisin eta agintari georgiarrak kritikatu, mehatxatu eta santzionatu dituzte. Are gehiago, Olivér Várhelyi-k, Europako Batzordeko komisarioak, Kobakhidzeri telefonoz esan zion lege onarpenarekin aurrera jarraitzen bazuten georgiar gizartea gehiago polarizatu zitekeela eta horrek kontrolik gabeko egoerak sortu ditzakeela, egun batzuk lehenago Robert Fico-ri, Eslovakiako lehen ministro sozialdemokratari, gertatu bezala, tirokatu zutenean.

1980ko hamarkadatik EBko lehen ministro batek ez du horrelako atentatu garrantzitsurik pairatu. Baina, heda-bideak Ficoen kontrako atentatua ia justifikatzen iritsi ziren, eta politikoki biktima jipoitu zuten. Fico ez baita txintxo portatzen, Ukrainako gerran negoziatioak eskatuz eta Israel palestinarren aurka egiten ari den sarraskia salatuz. ●



# Lehiakortasuna hezkuntzan



TERE MALDONADO  
FILOSOFIA IRAKASLEA

**S**aldu eta erosi giza jarduerak dira batik bat. Merkatuak eta azoka txikiak espazio publiko zalapartatsu eta biziz beteak dira, sozialitate-lekuak, non behar ditugun gauza balioitsuak topatzen ditugun (janaria, arropa, tresneria), bidezko prezio baten truke. Bertan, gizaki ezagunen eta ezezagunen arteko topaketa argitsu eta iheskorra gertatzen da. *Saiatu ahal dut gona hau? Zein itxura ona duten piper horiek. Nor da azkena? Jar iezadazu hainbeste hemendik. Eramango al duzu zeuk hegaltze-mendrezka hori? Ez itxaroteko. Zure kanbioa. Mila esker.* Ez dago larunbat goizean merkatura edo (adi sinonimora) plazara joatea baino hobeagorik. Baina, deabruak liluraturik, hasi ginen merkatura deitzen askoz ere zoritxarreko zerei: burtsa-merkatuak, lan-merkatua, finantza-merkatuak, etxebizitza-merkatua. Karl Polanyi ekonomialari eta pentsalari handiak abisatu zigun: lana, lurra eta dirua ezin dira salgaiak izan (salgaiak zera direlako: merkaturatzea saltzeko ekointzitate objektuak). *Lana ez da merkantzia* LANERen leloa da. Baina kapitalismo berantiarra den-dena salgai bihurtu du. Eta airearen kutsadurak bezainbeste, mundua estaltzen duen publizitate-mantuak itotzen gaitu.

Egunen batean, hau guztia iragan deenean, azken kapitalismoan publizitateak eta propagandak bizitzaren zirrikitu guztiak nola inbaditu zituzten azalduz historia sinestezina idatziko du norbaitek. Etorkizun hobe baten irakurle txundituei kontatuko die guztia saldu-erosi beharreko merkantzia bilakatu genuela. Eta lehia zakarreko ingurugiroetan, publizitatea eta propaganda jaun eta jabe bihurtu zirela. Sekula ikusitako aldaketa antropologiko bat eragiteko zorian egon ziren: hondakin baztergarri bihurtu ez ziren gizaki guztiak, egiten zutena egi-



DOM CAMPISTRON

ten zutela, konturatu gabe erosten eta saltzen ari ziren, atsedean gabe, martin-ariketean etenbarik murgilduta. Egun santu osoan txerpolariarena egiten, 7/24, deskantsurik ez.

Antza denez, filosofia irakasle bat baino gehiago hiper-merkantilizazioarekin kezkatuta gabilta. Hau idazten ari naitzela ikusi berri dut Iñigo Martinez Peñak honako galdera hau egin duela ARGIAN, hain zuzen: den-dena eros ote daiteke? Hartmut Rosa irakurtzera gonbidatzen gaitu ezetz esaten laguntzeko. Nik gaineratuko dut Michael Sandel pentsalaria, beti gustuko ez dudana arren, *Diruak erosi ezin duena* bere liburua sutuki gomendatzen baitut.

Gure kezkek nonbaitetik etorri behar du. Agian, irakasleok jada komertzial huts bilakatu garela egiaztatetik. Hezkuntza arautua supermerkatu bilakatzeko zorian dago. Gure lantokiek (saltoki handi horiek), matrikula garaia hasita propagandarako makineria martxan jarri dute ikasle-bezeroak erakartzeko. Bezeroari arreta emateko bulegoak ipin-

tzea izango da hurrena. Ikusiko duzue.

Ikasle-elkarte batzuek aldarrikatzen dutenaren aurka, noten bidezko ikasleen arteko lehia ez da arazo nagusia. Nota altu asko eskuragarri egon daitezke denontzat. Lehia ondasun urrien artekoa da. Esaterako, hautazko ikasgaietan ikasle-bezeroak lortzeko: Disney-ra bidaiara, nota bikainak, *gometxekin* jolasten pasatzea klaseak, oso zoriontsuak izatea. Etorri gugana, matrikulatu gure ikasgai honetan (ez zenituzkete sinetsiko ikasgai batzuen izenak), zelako pagotxak eta deskontuak eskaintzen ditugun!

Haragi odoliti zatiak bota dizkigute lurzorura eta hara oldartzen gara, ziztu bizian, ahal dugun guztia haginkadaka erauztera, beste zakur gosetuei letaginak erakutsiz. Baina ez gara txakur-talde gosetua, lankideak gara. Ez etsaiak, ezta derrigor lagun minak ere: lankideak. Lehian murgildu gaituzte, eta gure arteko kideasuna desagertzen hasi da. Langile gisa zegokigun duintasuna hустubide beretik joango zaigu. Ez badugu eragozten. ●



RUBEN SÁNCHEZ  
BAKAIKOA  
IRAKASLEA

## Betoz judutarrak Gasteizera

**G**asteizen, Espainiako Estatuaren mendeko beste hiri batzuetan bezala, bazen juderia bat, kale/auzo bat, non judutarrak bizi ziren. Kale hori Alde Zaharrean dago, *Barruko kale berria* du izena, jende gehienak gaztelaniazko izena erabiltzen duen arren *Nueva dentro*.

Orduko Gasteizko judutar biziak Juderian bizi ziren, eta judutar hilak Judimendin. Gaur egun, Judimendi auzo bat da, baina izena judutarren hilerrri zaharrari zor dio, gaur egungo Judimendiko parkean zegoena, eta parkea bera existitzearen arrazoi dena.

Espainiako errege-erregina (guztiz) katolikoek 1492an erabaki zuten beren erreinu kristauan judutar erlijioa pertsonak ezin zirela bizi eta Espainiatik egotzi zituzten. (Herritar musulmanekin gertatu bezala, eta, hala ere, euren erlijioa utzi eta katolizismoa onartuta ere, ez ziren inkisiziotik eta jazarpenetik libratu).

Gasteizko judutar biziak Baionara alde egin behar izan zuten, baina Gasteizko agintariekin hitzarmena sinatu zuten, ezen judutar hilak behintzat bakean laga zituzten Judimendiko hilerrian, gainean etxerik eraiki gabe. Gaur egun, parke horretan paseatu, jolastu edo etzaten garelarik, gasteiztar judutarren hezurren gainean egiten dugu.

500 urte baino gehiago igaro diren honetan, zaila da Baionara joan ziren ju-

duar haien ondorengoak nortzuk diren jakitea (denboraren poderioz, biderkatuko ziren, eta munduko edozein bazterretan zabalduko). Agian, pertsonaren batek froga lezake bere arbasoren bat Gasteizko Juderian bizi izan zela. Eta lortuko balu? Emango genioke etxe bat bertan, oraingo auzokideak beste norabait bidalita?

Wikipediaren arabera, judutarrak K.a. 733an, K.a. 597an, K.a. 63an, eta K.o. 132an egotzi zituzten Palestinatik. Ezinezkoa denez norbaitek frogatzea bere arbaso bat bizi izan zela Palestinan duela hainbeste denbora, Israelera joateko gutxieneko baldintza zure aita-amametako bat judutar erlijioa izatea da. Erlijioa, ez jatorria.

Zergatik ordaindu behar dute palestinarrek errege-erregina katolikoek edo Hitlerrek judutarren kontra eginiko genozidioa? Gainera, sionismoa sortu aurretik, Palestinan musulmanak, kristauak eta judutarrak bizi ziren, Gasteizen ez bezala.

Nazismoa edo muturreko katolizismoa bezala, sionismoa garbiketa etniko bat egiten ari da –“jenderik gabeko lur bat, lurrik gabeko jendearentzat”– egin-tza burutu politikaren bidez: badakite denbora pasatzen denean injustiziarik handiena ere iraganeko historia bihurtzen dela, beharbada, kale edo parke baten izenean fosilizatuta. ●



ITXARO BORDA  
IDAZLEA

## Isil-isilik

**E**mazte batek zendua den euskal idazle eta poeta bat akusatzen du, abusuak egin zizkiolakoan, eskolan zebilen nerabe garaietan. Erbia kitzikatzea, arrazoi du Gorka Bereziartuak. Beste edonor izan balitz, afera ez zen isilik geldituko, feministak eta ni barne, salaketategi bilakatuko ginatkeelako: aski dela, kontzentrazioa seietan udalletxe plazan, eta abar... Ohikoa, baina ez, horrelakorik ez da gertatu, errautsa tapiza pean gorde da eta kito!

Badirudi euskal literaturak heterodoxia *de facto* onartutako atea zabalik daukala: iragan egun batez, gure egu-

neroko izparringian, Mirande & Enbata astekariaren arteko harremanez idatzi artikulu baten karietara irakurri ditugu, gusturik hoberenean, Miranderen Hitlerri eta bere lagun naziei buruzko solas plaxentak, kontestualizatzerik gabe, ideologia hori, gure artean, naturala, banalizatua balitz bezala. Mirande idazle gisa bat da, baina hiritar gisa, ezin dira bere jaidura naziak komentatu?

Beleak eta eleak zuritzen gabiltzan bitartean, beltz-kaki koloreko Europa batean bizitzeko prestatzen ari gara: baietz istorio hau gaizki bukatu! ●



# Utopia zikinen beharraz



**BEÑAT IRASUEGI IBARRA**  
KOOPERATIBISTA

**E**uropako Parlamenturako hauteskondeen bihamundean idazten ditut lerro hauek, garai ilunak, Internazional Erreakzionarioaren garaipena europar legebiltzarrerako hauteskondeetan. Lehenagotik ere bazetorren bolada, eta bizi dugun fase kontserbadorearen berrespena da, baina beldurra sortzen du. Izan ere, neoliberalismoak lortu duen garaipen handienetakoa da kolektiboki etorkizun bizigarriez pentsatzeko gaitasunaren galera. Hutsune horretan topatzen du eskuin muturrak bere tokia, etorkizun desiragarririk gabeko orainaldi ziurgabea.

Egoera horretan nator utopiez eta horien ezinbesteko beharraz solastatzera. Etorkizun desiragarri, bizigarri eta emantzipatzaileak pentsatzea, gure eguneroko egitekoetara ekartzera. Seguruenik utopiez modu estrategikoan hitz egin nahi dugun gutxiespenak kinto berriak jasoko dituen momentuan. Utopiaren forma berriak aurkitu behar ditugu, irla bat izanez ezagutu bagenuen ere, ondoren, ilargi, planeta, izar gorri, estatu, komunitate trinko eta bestelako formak izan ditu, eta gaur

Neoliberalismoak  
lortu duen garaipen  
handienetakoa da  
kolektiboki etorkizun  
bizigarriez pentsatzeko  
gaitasunaren galera

egunean bidea egiten lagunduko diguten ideia eta iruditegien forma hartu beharko dute.

Utopia zikinak, lokaztuak, antizak, izango dira seguruenik aurrerantzean eraiki beharko ditugunak, zeren ideia utopiko aurreratu eta garatuak landuko baditugu, ikuspegi integrala izan beharko dute, bizitza bizigarriak erdigunean izango dituztenak, eta bizitzaren posibilitate guztiak aztertu eta garatzeko

aukera emango dutenak, lurretik, lokatetik sortuak, beraz. Ikuspegi trantsizionala garatu beharko dugu, energia, elikadura, bizi-espazioak, aisialdia, zaintza, teknologia, lana, eta bizitza posible egiten dituzten eremuen burujabetza kolektiboak pentsatzeko, gure gorputz eta harremanen eraldaketa, eredu zis, patriarkal eta antropozentrikotik harago gauzatzeko. Irudimen transhumanista, material eta bizigarria beharko dugu.

Utopia zikinak gure egunerokoan errealtate izan dira beti, eta aurretik ere etorkizunean bizi izan den jendeaz ikasi behar dugu, guretzat utopikoak liratekeen bizitza, praktika eta proiektuak izan zirelako, eta gaur egun ere badirelako. Agian zabaltzeko eraldatu behar direnak, baina zikinak izanik ere bidea erakusten digutenak. Garai ilunotan, esperantzen internazionala aktibatzen, utopia lurreratuak, lurrez zikinduak, errizomatikoak landu beharko ditugu, egunerokotik. Ursula K. Le Guin erreferenteak zioen bezala, "gure sustraiak ilunpean daudelako, elikatzen gaituen lurrean". ●

**EKAINAK 7 / 18:00**, Kultur Etxe Zaharrea: **Esnatu naiz kabareta** antzerkia nerabeentzat.

**EKAINAK 19 / 18:00**, Emakumeon Etxean: Zineforuma eta solasaldia: **80 egunean**.

**EKAINAK 21 / 20:00**, Erriberan: **Zinegoak 21**. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdiko film laburrak.

**EKAINAK 26 / 10:30-13:30**: Gaztelekuko nerabeak **harrotasunez margotzen**.

**EKAINAK 27 / 16:00-19:00**, Erriberan: **Zarata** erakusketa, LGBTIQ+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzeko.

**EKAINAK 28 / 10:30-13:30**: Gaztelekuko nerabeak Joseba Barandiaran plazako zuhaitzak giraldekin **apaintzen**.

**EKAINAK 29 / 20:00**, Erriberan: **Esnatu naiz** kabareta antzerkia helduentzat.



Astigarragako Udala



Garenaz harro



# GIPUZKOA

**Ekin.**

*Gipuzkoa  
oparoagoa  
izateko.*

**Zaindu.**

*Pertsona guztiak eta  
horien ingurukoak  
zaintzen dituen.*

**Bizi.**

*Ondo eta  
duin bizi  
daitezen.*



**GIPUZKOA**

Foru Aldundia



# Gerrak sortzen dituen euskal industria militar berria: **Satlantis-en adibidea**

Duela ia urte eta erdi, Ahoztar Zelaieta kazetariak Satlantis enpresaren aurpegi ezezagunena ekarri zuen argitara. Azkenaldian berrikuntza teknologikoaren alorrean sortzen ari diren euskal enpresen izar gisa aurkezten zaigu Satlantis; baina *El Salto*-k argitaratutako *La empresa vasca para la vigilancia de fronteras que desarrolla la infraestructura militar europea* (Europako azpiegitura militarra garatzen duen mugak zaintzeko euskal enpresa) artikuluak bere jarduera militarrean

jarri zuen fokua: kontrol sozialaren eta armagintzaren sektoreetan dituen inplikazio sakonak, AEBetako Defentsa Departamentuarekin duen harremana, edo euskal administrazioetatik jasotako laguntzak kasu. Oinarri horretatik abiatuta, erreportaje honetan Satlantisekin lotutako beste alderdi batzuetan sakonduko dugu, gure ustez adibide egokia baita euskal industria militarren zati batek gaur egun jarduteko duen modua ezagutzeko.

## GASTEIZKOAK TALDE ANTIMILITARISTA

**E**uskal industria militarrek gero eta gehiago laguntzen du munduan piztuta dauden gerrak hemen has daitezen, horiek posible egiten dituzten gailuak hemen fabrikatzen baitira. Duela gutxi hasi gara armagintzaren sektorean parte hartzen duten euskal enpresen zerrenda berritzen, eta datuak asaldagarriak dira: oraingoz badakigu bikoiztu baino gehiago egin direla, 200etik gora dira, eta susmoa dugu errepasoa amaitzen dugunean hirukoiztu egin direla esan beharko dugula.

Satlantisi buruz erantzun nahi dugun galdera nagusia honako hau da: nola li-teke 2014ko abenduan eratutako en-

presa bat zazpi urte geroago dozenaka milioi euro inbertitu dituzten akziodun berriak lortu izana, administrazio publiko guztien dirulaguntzak eskuratu izana, Europar Batasunaren defentsa-programak koordinatzen edo enpresak erosten eta munduko hainbat eremutan filialak irekitzen aritzea?

### **PUBLIKOTIK PRIBATURA**

Satlantis sortu zuten hiru bazkideak ezagutu ditzagun, lehenik eta behin. Rafael Guzmán da bat, Floridako Unibertsitatean bizi den Andaluziako astrofisikako irakaslea eta Satlantis ospetsu egingo duen teknologiaren asmatzailea: iSIM,

“doitasun handiko” irudiak hartzen dituen kamera, “argazki submetrikoekin (metro bat baino gutxiagoko pixela) 500 kilometrorra orbitatzen duten sateliteentzat”. Baina proiektu handiak dituzten ikertzaileak asko dira, eta ohikoena da bidean geratzea. Non dago gakoa Guzmán irakaslearenak aurrera egin zezan? Merkataritzako Erregistroak jasotzen dituen beste bi bazkide fundatzaileetan. Alde batetik, Cristina Garmendia donostiarra, Espainiako Gobernuko Zientzia eta Berrikuntza ministro ohia José Luis Rodríguez Zapateroren bigarren agintaldian (2008-2011) eta Mediaset España (Telecinco, Cuatro) erral-



IREKIA.EUS

**LANKIDETZA PUBLIKO PRIBATUA.** 2017an Satlantisek lankidetz hitzarmena sinatu zuen Euskadiko Parke Teknologikoen sarearekin, EHUren Leioako campusean lantegia ezartzeko. 2019an inauguratu zen egoitza. Argazkian Satlantiseko Hernani eta Garmendia, Jaurilaritzako Urkullu lehendakaria eta Tapia sailburua, eta Bizkaiko Aldundiko Pradales diputatua.

doi mediatikoaren presidente izendatu berria, beste kargu askoren artean. Bestetik, Juan Tomás Hernani Burzaco bilbotarra, Berrikuntzako Estatu idazkaria hain zuzen ere Cristina Garmendiaren agindupean, eta Satlantiseko zuzendari exekutiboa enpresa sortu zenetik.

Guztiaren jatorria 2011n kokatu behar da, Hernanik berak elkarriketa batean azaldu zuenez. Orduan Zapateroren ministro zen Garmendiak Guzmán irakaslea eta bere proiektua ezagutu ziotuen bidaiaria ofizial batean. Ondoren, Garmendiak Hernanirekin eta SILO Science & Innovation Linkekin jarri zuen harre-

Ez dakigu elkarte publikoen, ministerioen, enpresa pribatuen eta goi karguen arteko hartu-eman horiei guztiei ate birakari deitzerik dagoen

manetan Guzmán. SILO 2012an sortutako aholkularitza enpresa da, bere web-gunean irakur daitekeenez "lankidetz publiko pribatuen bidez berrikuntza bultzatzeko asmoz" sortu zena. Satlantise bultzatu zuen "inkubagailu" lana eginez, bazkide sortzaile bihurtu zen eta bere administrazio kontseiluan ordezkari izan lortu zuen.

Bi xehetasun garrantzitsu. Lehenengoa: nor izan zen SILO sortu zutenetako bat? Cristina Garmendia. Garmendiak SILOko administrazio kontseilua utzi zuen zazpi urteren ondoren, 2019an, bere alaba Teresa Itziar Celaya Garmen-





UMPEES

## Cristina Garmendia Mendizabal

Donostia, 1962

Biologia Zientzietan lizentziaduna eta Biologia Molekularrean doktoratua da, enpresa-kudeaketaren arloko tituluak ere baditu.

José Luis Rodríguez Zapateroren Zientzia eta Berrikuntza ministroa izan zen haren bigarren agintaldian (2008-2011). Curriculum luzea du enpresetako zuzendaritza postuetan, besteak beste: Bankinterreko Berrikuntzarako Fundazioko Patronatuko kidea (2006-2008); Innobasqueko Zuzendaritzako Kontseilari Exekutiboa (2008); Everiseko kontseilaria (2012-2019); SILOko sortzaile eta kontseilaria (2012-2019); Gas Natural Fenosako kontseilaria (2015-2018); Satlantiseko sortzaile eta presidentea (2014-2020), eta ondoren ohorezko presidentea; Caixabankeko kontseilaria 2019tik; Mediaset Españaiko presidentea 2024ko maiatzetik.

Donostiako Urrezko Danborra eman zioten 2008an.

## Juan Tomás Hernani Burzaco

Bilbao, 1961

Industria ingeniaria da Bilboko Industria eta Telekomunikazio Ingeñariaren Goi Eskolan. Ekonomialaria da Euskal Herriko Unibertsitatean. Floridako Unibertsitateko ikerketa-irakasle gonbidatua da.

Berrikuntzako idazkari nagusia izan zen Zientzia eta Berrikuntza Ministerioan, Cristina Garmendiaren agindupean, eta Espainiako Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroko (CDTI) presidentea 2008 eta 2011 artean. Enpresarlaroi dagokionez: Innobasqueko Nazioartekotzeko zuzendari nagusia (2006-2008); Eurobulegoaren sortzaile eta zuzendaria; Espazioko Europako Enpresa Gazteen Elkarteko (YEES) presidentea; Dominioneko kontseilari koordinatzailea; Satlantisen sortzaile, kontseilari eta zuzendari nagusia 2014an sortu zenetik gaur egun arte.



dia sartu zen egun berean, eta 2014an sartu zen Rubén Celaya Martínez senarrak kontseiluan jarraitu zuen. Bigarrenik: SILOren bazkide sortzaileen artean daude Antonio López eta Diego Moñux ere, ministro izan zen garaian Garmendiaren kabineteko aholkulariak. López geroago sartu zen Satlantiseko Administrazio Kontseiluan, 2015ean. Eta Moñuxek, gainera, Hernanirekin eserlekua partekatu zuen enpresen ikerketa eta garapena sustatzen duen Espainiako Gobernuaren erakunde publikoaren administrazio-kontseiluan, CDTIn (Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa). Hain zuzen ere, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mende dagoen erakundea da.

Laburrean: Garmendia eta Hernani Zientzia eta Berrikuntza Ministerioako ministro eta goi-kargudun dira 2008-2011 urteetan, hurrenez hurren. 2014an, Satlantisen enpresa sortu zuten (Guzman irakaslearekin batera), Satlantisen Administrazio Kontseiluan sartzen den SILO aholkularitza enpresaren bultzadari esker. SILO 2012an sortu zuten, besteak beste, ministroak berak eta ministerio bereko aholkulari ziren Antonio López eta Diego Moñuxek.

Ez dakigu elkarte publikoen, ministerioen, enpresa pribatuen eta goi karguen arteko hartu-eman horiei guztiei ate birakari deitzerik dagoen. Edo, agian, beste termino



Sateliteetan ezartzen diren erresoluzio handiko kamerak dira Satlantisen produktu izarra.

IREKIA.EUS

bat bilatu beharko litzateke ministro batek eta bere kabineteko zati handi batek enpresa bat sortu eta berehala erakundeen laguntza ekonomikoa eta politikoa jasotzen hasten direnerako.

### DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK ETA BABES POLITIKOA

Satlantis 2014ko abenduan jaio zen, eta bi urte baino lehen bere proiekturako 2,3 milioi euro biltzea lortu zuen. Alde batetik, Elecnor, Idom, Telefónica edo Everis-NTT bezalako inbertitzaile pribatu distiratsuei esker. Bestetik, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia bezalako erakunde eta organismo publiko estatal eta autonomikoen inbertsioen eskutik. Baita Orzaren parte hartzeari esker ere, Elkarkidetza eta Geroa pentsio-funtsen inbertsio-erakunde dena. Hau da: zuzenean edo zeharka (zerga edo pentsioen bidez), euskal biztanleriaren zati handi bat euskal industria militarren izar berri hori babesten ari da ia hasieratik.

Garmendiak, Hernanik eta Satlantiseko arduradunek badakite esparru publikoan mugitzen, ez bakarrik diru bila. 2017ko martxorako, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Arantxa Tapia sailburuak bisita publikoa egin zuten en-

“NASaren eta Defentsa Departamentuaren inbertsio amerikarra albiste bikaina da, gure plana babesten ari baitira”

**Juan Tomás Hernani**

presaren Getxoko bulegoetara. Hilabete batzuk geroago, Satlantisek akordio bat iragarri zuen Euskadiko Parke Teknologikoen sarearekin, Leioan, EHuko Parke Zientifikoan, 640 metro koadroko lantegi bat jartzeko. Lantegia 2019ko urtarrilean inauguratu zuten ofizialki, eta berriro ere Urkullu eta Tapia izan ziren bertan. Baina Satlantisek eta bere ekoizpen militarrek EHurekin duten harremana are haratago doa, aparteko koadroan irakur daitekeenez.

2021ean, Satlantisek inbertitzaile berriak bilatu zituen berriro, eta urte

amaierarako helburu gisa jarritako 16,5 milioi euroak lortu zituen, berriro ere lankidetzak publiko-pribatuari esker. CTDik 2,5 milioi euro erosi zituen akzioetan –gogoratu, Satlantisen bultzatzaileetako batzuk Espainiako Estatuko erakunde publiko horren zuzendaritzan aritu ziren-. Gainerako milioiak sozietate publikoek jarri zituzten (Espainiako Gobernuaren Axis-ICO eta SEPI), lehen aipatutako Orza inbertsio-erakundeak, eta Enagas enpresa pribatuak.

2022ko apirilean, Satlantisek 24 milioi euroko inbertsio berriak lortu zituen. 2021eko inbertitzaileak errepikatu ziren, eta horiei Bizkaiko Foru Aldundia gehitu zitzaion. Baina orduko hartan inbertitzaile nagusia Encino Environmental Holdings enpresa estatubatuarra izan zen. Izan ere, inbertsioa AEBetako Satlantisen filiala (Satlantis LLC) bultzatza bideratuko zen nagusiki.

### EVERIS

Itzul gaitetzen une batez Satlantisen hasierako inbertitzaileetara. Enpresa pribatu baten presentziak arreta deitu zigun: Everis (gaur egun NTT Data), enpresa talde bat da, eta 2010etik arlo militarrean dihardu Everis Aeroespacial



y Defensa (Everis ADS) izeneko sozietatearen bidez. Bada, Cristina Garmendia haren administrazio kontseiluko kide izan da 2012ko urritik 2019ko abuztura arte.


Everis ADSk ibilbide luzea du material militarren salmentan, eta horietako batzuk bereziki deigarriak dira. Ikus ditzagun bi adibide. *Periodico de España* egunkariak argitaratu zuenez, 2017an Alakran morteroak eta munizioak saldu zizkien Arabiar Emirerri Batuei eta Saudi Arabiari 117 milioiren truke, nahiz eta 2016tik NBERen eta Europako Parlamentuaren hainbat ebazpenek Saudi Arabiari armamenturik ez saltzea eskatu zuten, Yemengo gerran biztanleria zibila sarraskitzeagatik. Bestalde, 2024ko martxoan, enpresako langile batzuek salatu zuten, "urteetan Israelgo Estatuari armamentua saldu dioten enpresen artean, milaka haur palestinar hiltzeko erabiltzen den horixe, NTT Data (lehen Everis) dago".

2023ko urtarrilean, Satlantisek Lurraren Defentsa eta Behaketa espazio arloko negozioak erosi zizkion Everisi, Espainiako Defentsa Ministerioaren, Europako Espazio Agentziaren (ESA) eta Europako Batzordearen oniritzia jaso ondoren. Satlantiseko arduradun Juan Tomás Hernanik adierazi zuen erosketak Satlantisen posizionamendua "bultzatzea" zekarrela "European Defense Fund-aren eta ESaren" aurrean.

## MERKATU MILITARRA SATLANTISEN MOTOR GISA

Izan ere, Satlantisen garapenak arlo militarrean sortzen zituzten espektatibak, Defentsarako Europako Funtsetarako iragarritako 7.900 milioiak eta munduaren zati handi batean dauden gerra hotsak ikusita, enpresako arduradunek sektore horretan sakontzea erabaki zuten.

EBk finantzatzutako Europako defentsa programetan izena ematen hasi zen, Nemos programa koordinatuta, "funtzio anitzeko gaitasunekin, espazioan oinarritutako zaintza eta jarraipena barne". Programa horretarako elkartu ziren bost herrialde bederatzi enpresaren partzuergoak zehaztu zuenez, "parte hartzen duten erakunde eta herrialdeen arteko lankidetzaz ezarri nahi du, Europako defentsaren eta segurtasunaren arloan dituen gaitasunak indartzeko helburuarekin". Optise programa ere koordinatu du Satlantisek, eta Europako Spider Defentsa Funtsen programan



Satlantisek bere webgunean iragartzen du Europako Defentsa programetan duen parte hartzea.

Komeni zaigu  
hausnartzea nortzuek,  
nola eta zertarako  
sortzen duten gaur egun  
bizi dugun  
espiral belizista

parte hartu du. Programa horren helburua da intelijentzia, zaintza eta ikuskapenera bideratutako sateliteen sarea hobetzea.

2021ean, Atlantis TEDAEn sartu zen (Defentsa, Segurtasun, Aeronautika eta Espazioko Teknologien Espainiako Elkarte, Espainiako sektore militarren benetako patronala). Bere negozio-eremua, besteak beste, "azpiegitura kritikoen eta/edo mugen" monitorizazioan oinarritzen da. Urte horretan bertan FEINDEFen parte hartu zuen, Madrilen egiten den armamentu azokan. Bertan, Defentsa eta Teknologia Espaziala mahai-inguruan parte hartu zuen, Espainiako goi agintari militarrekin eta sektoreko enpresa handietako ordezkariarekin batera, hala nola Indrarekin eta Euskal Herriko Sener-ekin.

Ikusi dugunez, 2023. urtearen hasieran Satlantisek Lurraren Defentsa eta

Behaketa eremua erosi zion Everisi. Hilabete batzuk geroago Dubaiko SpaceOps azokara joan zen, Satlantis Defence & Security lelodun standarekin. Halaber, aste horietan "Britainia Handiko defentsan" sartu zela jakinarazi zuen enpresak, nahiz ez zuen zehaztu zein proiektu edo programatan. Urte bereko amaieran, Airbusekin aliantza egin zuen, Espainiako Defentsa Ministerioaren behaketa sateliteak garatzeko. Satelite horiek, azaldu zuten, "araketa eta zaintza militarreko gaitan lan egiteko aukera ematen digute, eta, beraz, oso gaitasun aurreratuak izan ditzakegu helburuak identifikatzeko, mugimendu militarrek monitorizatzeko eta defentsa operazioei buruzko informazio estrategikoa biltzeko".

## GERRA HOTZA ETA MENDEBALDEAREN DEFENTSA

2022ko apirilean Juan Tomás Hernani Atlantiseko zuzendari nagusiak *El Correo* adierazi zuen "Defentsan Gerra Hotz berri batean" gaudela eta bere enpresak "Mendebaldeko bandoa" zerbizatzea erabaki duela. Ildo horretan, eta "espaziotik zaintza eta ikuskapena" errazteko Pentagonoarekin izandako esperientziaren ondoren, hilabete geroago *Deian* adierazi zuenez, "NASaren eta Defentsa Departamentuaren inbertsio amerikarra albiste bikaina da, gure plana babesten ari baitira". Apustu horren ondorioz, besteak beste, Satlantis LLCk filial estatubatuarren presidente Sean O'Keefe izendatu zuen. AEBetako Itsas

## EHU eta armagintza

2017ko azaroan, Satlantisek akordio bat jakinarazi zuen, EHUK Leioan dituen lurretan 640 metro koadroko planta bat instalatzeko. Hilabete batzuk lehenago, 2017ko maiatzean, EHUKo Bilboko Ingeniaritza Eskolak eta Satlantisek lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten bost urterako, besteak beste bilatzen zuena "eskolaren eta enpresa teknologikoaren arteko ideien trukea eta kontrastea sustatzea, proiektu komunak garatzeko".

Juan Tomás Hernani Satlantiseko zuzendari nagusiak oso argi dauka: "Zalantzarik gabe, unibertsitateak gertu egoteak talentu gazteenari ateak irekitzen dizkio, eta talentu horri aukera ematen diogu enpresan azkar sartzeko (...) Eusko Jaurlaritzaren beka batzuk hartu genituen, lau gazte Floridara bidali genituen eta, ondoren, pertsona horiek beraiek Satlantisen sartu ziren (...) orain kapitulu berria ireki dugu Lanbide Heziketako eremuarekin", irakur daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean. Ez da harrizkoa, hortaz, 2023an, Ingeniera de Sistemas para la Defensa (ISDEFE) enpresa publikoak, Desafío Defensa sariaren 1. deialdian, komunikazio irabazle gisa Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasle ohi horietakoren batek (urteak zeramatzan Satlantisen lanean) egindakoa aukeratu izana: Nueva Generación de Satélite con Tecnología Disruptiva Óptica y Térmica para Defensa y Seguridad (Defentsa eta Segurtasunerako Teknologia Disruptibo Optiko eta Termikoa duen Satelite Belaunaldi Berria) zuen izena lan irabazleak. Saria Defentsa Ministerioko Armamentu eta Materialen almirante zuzendari nagusiak eman zuen.

Defentsa arloko enpresa teknologikoen, euskal erakundeen, unibertsitate eta ikerketa zentroen eta Defentsa Ministerioaren arteko harremanen erakusle ona da. Gaur egun euskal industria militarren sektore oso baten ezaugarri bilakatu da.



Armadako idazkaria izan zen O'Keefe, eta George H. W. Bushen garaian Defentsa Departamentuko finantza zuzendaria.

Azken batean, argi dago Satlantiseko arduradunek zein lehenasunekin zuzentzen duten beren negozioa. Horrela laburbildu zituen Hernanik *El Correo* egunkarian, urte bereko apirilean (ikus daitekeenez, zenbait komunikabideren tratu ohikoa eta adeitsua industria militarren normalizazioaren beste estrategia giltzarrietako bat da): "Defentsan bultzada oso argia dago. (...) Garapena gobernuak markatzen dituzten eraztunen arabera izango da. Lehenbizi defentsa, segurtasuna, mugen kontrola".

### ERALDATU ALA GERRAK BULTZATZEN JARRAITU

Komeni zaigu hausnartzea nortzuek, nola eta zertarako sortzen duten gaur egun bizi dugun espiral belizista. 2010eko hamarkadaren erdialdean, Europar Batasunak bere funtsak "defentsa" programak finantzatzeko irekiko zituela iragarri zuen. Euskal kasuari erreparatuta hor hasi zen egungo armagintza lasterketa, orduetik produkzio militarri lotutako enpresen kopurua biderkatu egin baita. Eta Euskal Herria ez da salbuespena.

Heriotzaren merkatariek gailu eta armamentu sistema berri eta sofistikatuetan inbertitzen hasi ziren, eta horretarako finantzaketa publikoa izan zuten: gastu militarra areagotu

zen, politika eta hezkuntza estamentuen bultzada izan zuten, eta sektoreko langileen eta herritarren isiltasun konplize edo ezjakina nagusitu zen. Zirkulu zoroa itxi eta merkatariorien etekinak bermatzeko, gerrak, segurtasunik eza eta beldurrak elikatzea besterik ez zen falta. Eta horretan gaude.

Satlantis gerrara kondentatzen gaituen ekoizpen militarren eskalada berri horren adibide bat da. Karrera horretan, bere kasuan ikusi dugun bezala, administrazioen, ikerketa zentroen eta botere guneen zirkuituak kontrolatzen dituztenek, eta, izaera zientifikoa edo akademikoa izan arren, inolako eskrupulurik ez dutenek, abantaila argiarekin jokatzen dute.

Gerra hemen hasten da, ekoizpen horretan parte hartzen duen euskal enpresa bakoitzean, eta hurrengo gerrak lehertu aurretik gelditu nahi baditugu, berriro ere ezintasunean erori baino lehen, bidea argia dirudi: gerra horiek eraikitzen dituen industriari eta etekina ateratzen dieten merkatariei alde aurretik amaiera ematea. Industria militarren eta gerren aurrean alternatibak egon badaude. Hasiara ona litzateke ekoizpen militarra eraldatzea gizarte premiei erantzungo dien ekoizpen zibilean. Urteak daramatza mugimendu antimilitaristak hori proposatzen. Premiazkoa da alternatiba horiek garatzea... hil ala biziko kontua baita. ●



## BURRUNTZIAK ETA SORGIN-ORRATZAK

Badakizu nola esaten den  
'libélula' / 'libellule' euskaraz?

Iñaki Mezquita Aranburu (Alegia, Gipuzkoa, 1959) Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea da, odonatuzalea eta argazkilari naturalista. Iberiar Penintsulan bizi diren 84 burruntzi eta sorgin-orratzen izenak jaso ditu euskaraz. Zerrenda ofizial egiteko azken urratsaren zain daude proposamena prestatu duten Mezquita eta Jon Frahier ingurumen teknikaria. Euskaltzaleek berri onak behar dituztela aitortu digu alegiarrak: "Zeren denak berri txarrak dira. Hala esateko moduan dira: 'Martiano batzuk dira, baina zeozer egiten ari dira'".

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  IÑAKI MEZQUITA

**T**ximeleta lorean pausatu da. Hasi da argazki-kamera gerturatzen, enfokatu du, eta... sast! beste zomorro bat iritsi da eta jan egin du tximeleta. Horrela ezagutu zituen burruntziak eta sorgin-orratzak Iñaki Mezquitak. Pinpilinpaxuen atzetik ibiltzen hasia zen, eta Odonata Ordenako intsektuok agertzen zitzaizkion lehen lerroan, ausart eta energiaz beterik. 22 urte zituela hasi zen argazkigintzan, eta gaur arte -65 urte ditu- burruntziak argazkitan iltzatu eta ikertu ditu. Ez da ogibidez biologoa, Lehen Hezkuntzan gorputz heziketako irakasle izan da, eta intsektuen mundua bere kabuz ikasten aritu da. Hasieran, burruntziek eta sorgin-orratzek estetikoki baizik ez zioten arreta eman, baina laster konturatu zen

paparazziarena egin behar zuela: "Animaliaren jokabidea eta bizimodua ez baduzu ezagutzen, nekez egin dezakezu lan ona argazkigintzan. Paparazziek hala egiten dute: pertsonaren jokabidea aztertu, behatu, eta danba! Harrapatu!". Liburuetatik aritu da ikasten eta azaldu digu "zoritxarrez" batere ustiatu gabeko mundua aurkitu duela: "Horretan ez zebilen inor eta zerbait egiteko ardura hartu nuen, nolabait". Ikerketa lanean urte luzez izan dituen bi bidelagun aipatu ditu: Francisco Javier Ocharan Oviadoko Unibertsitateko katedratikoa eta entomologoa, eta Angel Dominguez ilustratzaile bizkaitarra. Bi lagunak hil zaizkio eta bakardadea sentitzen du ikerketan jarraitzeko: "Bat-batean bi hanka erori dira eta bakarrarekin gelditu naiz".

**EZ DIRA GAUZA BERA  
BURRUNTZIAK ETA  
SORGIN-ORRATZAK**

Odonata Ordenako intsektu horiek euskaraz nola izendatu dituen galdetu diogunean, lehen argibide garrantzitsua eman digu. Bi Azpiordenatan banatzen dira intsektuok, batzuk *anisopteroak* dira eta besteak *zigopteroak*. Gaztelaniaz eta frantsesez Azpiordena bakoi-tzak izen bana du. Lehenengoak *libélula* / *libellule* dira eta bigarrenak *caballito del diablo* / *demoiselles*. Euskaraz, berriz, ez omen ditugu bereizten bi taldeak eta nolana erabiltzen omen ditugu sinonimoak. Mezquitak bereizketa egin du: *libélula* / *libellule* da burruntzia eta *caballito del diablo* / *demoiselles* sorgin-orratza. Oso argi dauka zergatik izan



200.000 argazki izango zituen Iñaki Mezquitak. Sufrituta, baina garbiketa egin du eta 90.000rekin gelditu da. Urteka eta espezieta sailkatuta dauzka. Ez ditu argazki-segidak egiten, banaka ateratzen ditu. Argazkian: Orrantzotzi arrunta izeneko sorgin-orratza (*Coenagrion puella*).

behar duen horrela. Azalpena ematen hasi denean, kazetaria tabernako aulkitik ezerezero begira, adituak esandakoa irudikatu nahian hasi da: "Oso erraza da argudioa. Burruntzia zer den denok dakigu, sutondoan egoten zen zintzilik sua zirikatzen. Hotz ikaragarria egiten duenean, etxeetan-eta sortzen diren estalaktikak ere burruntzi deitzen dira. *Burruntzia* izeneko intsektuak zuzenez zintzilikatzen dira normalean, bertikalean. Sorgin-orratza esanda orratza irudikatzen dut, horizontalean. Azken horiek sei hankan pausatzen dira".

Horizontaltasuna eta bertikaltasuna ez dira bi Azpiordenak bereizten dituen ezaugarri bakarra. Burruntziak sendoagoak dira eta aurreko hegoak estuagoak dituzte atzekoak baino. Sorgin-orratzak lirainagoak dira, eta hegoak berdinak dituzte aurrean eta atzean, guztira lau. Burruntziak burua borobilagoa dauka eta begiek ia dena betetzen dute, sorgin-orratzak, berriz, begiak bi alboetan dauzka.

Azalpenok entzunda, kazetariak baieztatu dio, hala dela, euskaldun arruntak ez dituela bereizten burruntziak eta sorgin-orratzak. Mezquitak zehaztu digu ez dela kaleko hizkeran soilik gertatzen, hiztegietan ere hala jasotzen dela. Hiztegietan ez, eta aldiz, Wikipedian banatuta dagoz.

#### 84 IZEN

Iberiar Penintsulan eta Kanarrietan 84 odonatu daude; Euskal Herrian 64-65 bat. Denei jarri die euskarazko izena alegiarrak. "Momentu honetan hemen daudenak" eta "epe ertainean egon daitezkeenak" hartu ditu kontuan. Intsektuona mundu bizia dela dio, batzuk goraka doazela eta beste batzuk behe-raka, "batez ere goraka, afrikarrak".

**Gozatu sanjoanak**  
askatasunez,  
plazerez eta errespetuz

Gora Hernani!



 **Hernaniko  
Udala**



Horregatik dute euskarazko izena 84 animaliatxoek. Zerrenda horretan dago 2015ean, Mezquitak berak aurkitu zuen espezie berri bat; Iberiar Penintsulan ez zegoena eta Pirinioetatik bestaldera, Europan, arrunta dena. Bidasoa aldetik sartu zen Gipuzkoan barrena 50 bat kilometro eta Seguraino iritsi da. Kakodun txikia du izena (*Onychogomphus forcipatus*). Ez da, ordea, Mezquitaren aurkikuntza bakarra. 2012an, iparraldetik sartu zen eta penintsulan beste inon ikusi ez den azpiespeziearekin egin zuen topo: txitxi-burruntzi isats-zuriarekin (*Orthetrum albistylum*).

Euskarazko ordainak erabakitzeke ardatza intsektuen izen zientifikoak izan dira. Batzuk grezieraz daude eta ia denak latinez. Haien esanahian erreparatu du ordaina aukeratzekoan. Horrez gain, frantsesezko, ingelesezko, katalanezko eta portugesezko izendapenak begiratu eta jaso ditu, baita gaztelaniazkoak ere, bazeuden kasuetan. Hasieran "lan tristea" izan zela aitortu du, bakarrik aritu zelako: "Ez neukan inor eztabaidatzeko eta erabakitzeke".

Bakarrik hasi zen, baina bidelagun sutsuak izan ditu: Kepa Altonaga, Asier Sarasua, Martxel Aizpurua, Eñaut Agirre, Iñaki Sanz-Azkue, Ion Garin, eta beste hainbat. Jon Frahier ingurumen teknikaria izan da ia hasieratik bere ondoan aritu dena, eta lana bien "kumea" dela dio. Asier Sarasuaren inplikazioa eta lana goraiatu ditu Mezquitak.

Filologoekin tira-biraren bat edo beste izan du. Haiek proposatutakoa baino sinonimo gehiago erabiltzea eta jasotzea pentsatu du Mezquitak: "Topatu ditugun sinonimoetan sekulako aberastasuna dagoela iruditzen zait eta hori ezin da galdu". Espezie Familiak izendatzerakoan sinonimo bat erabiltzen bada ere, topatu dituzten beste batzuk ez galtzea proposatzen du alegiarrak. Adibidez, *Coenagrionidae* generoa adierazteko hainbat ordain jaso ditu: sorgin-orratzak, andere-orratzak, orratzontziak eta ur-orratzak. Sinonimoen aberastasunaz ari dela, zehaztapena egin du: ez da gauza bera *heliokoptero* erabiltzea edo *burduntzi*. Hitz aukeratua *burruntzi* da, baina *burduntzi* ere jasoko du eranskinean: "Espezie batzuk metalizatuak dira eta burduntzi esatea... burdina... pena da galtzea. Asteriskoa jarri eta gorde". Izendegian denak jasota argitaratzea nahiko lukete.

## Une honetan Iberiar Penintsulan dauden eta epe ertainean egon daitezkeen 84 odonaturen euskarazko zerrenda egin dute Mezquitak eta Frahierrek

### AZKEN BEDEINKAPENAREN ZAIN

Duela bost urte lantegi horretan hasi gero, izendegia bukatutzat dute Mezquitak eta Frahierrek, inguruko biologo eta filologoei erakutsi diete proposamena eta haien oniritzia badute. Ofizial egi-

tea falta da, ordea. Azken bedekapena Eusko Jaurlaritzak emango luke, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Euskara Sailak. Proposamena noiz aurkeztu erabakitzeke daukate Mezquitak eta bidelagunek. Alegiarrak gogorarazi du beste hainbat alorretakoak ere, hala nola botanikakoak, anfibioetakoak eta narrastietakoak ere, haien izendegiak lantzen ari direla. Bitartean, burruntzi eta sorgin-orratzen izen zerrenda lehenengo aldiz argitaratuko da ARGIAN -erreportaje honen Interneteko moldaeran- eta Aragoiko Entomologia Elkartearen buletinean. Harrituko bagara ere, gaztelaniazko izendegia oraintsu bukatu dute eta hori argitaratzearen aitzakian euskarazkoa eta galizierazkoa ere jasoko dituzte Aragoiko Elkartearen ekaineko buletinean. Mezquitak ez du uste buletinean argitaratzea lehen eta azken pausoa denik. Zerrenda huts izan beharrean, argudioak eta justifikazioak emanda, prozesu guztia kon-



Sorgin-orratz hankagorria (*Ceragrion tenellum*)



Txitxi-burruntzi lepamarraduna (*Orthetrum coerulescens*)

Txitxi-burruntzi isats-zuria (*Orthetrum albistylum*)

tatu eta filologoen eremuko azalpenak emanda, artikulua edo argitalpen sakon bat ateratzearen aldekoa da alegiarra. Bere iritziz, gune egokia izango litzateke Aranzadi Zientzia Elkartearen *Munibe* aldizkaria. Bi erakusleho horiez gain, hedabide arruntek oihartzuna ematea nahiko luke, "gizarteari eman behar zaio. Ez luke zentzurik *Munibe*-n orain atera eta urtebetera esateak, 'a, bai, *Munibe*-n atera omen zen...!". Beste erakusleho bat ere izango du euskarazko izendegiak: Odonatologiaren Europako

“Topatu ditugun  
sinonimoetan sekulako  
aberastasuna dagoela  
iruditzen zait eta  
hori ezin da galdu”

**Iñaki Mezquita**

Biltzarra ekainaren 25etik 28ra egingo da Sevillan (Espainia) eta han ere aurkeztuko dute.

Gaztelania, galiziera eta euskara aipatu ditugu, baina denen artean nagusi katalana da. Izenen bilketan eta azterketan tradizio handia dutela dio Mezquitak: "Bide luzea dute egina. Animalion aipuak egiten diren plataforman 1.500 kide dira. Animalia horien inguruko jakintza kudeatzeko ereduak guretzat ispilu izan beharko luke. Bidea egiten ari gara, gogotsu!". ●

BABESLEA:

346.171 biztanleko lurgune euskalduna  
111 udal

**Arnasa gara  
EUSKARAZ GARA**

“Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriein amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira”.

Jon Maia Soria



“ ”

# Erreparazio zein mendeku ariketa bat da nire eleberria

**Irantzu Varela**

Komunikatzaile feminista

*Lo que quede* (euskaraz 'geratuko dena', *Continta me tienes* argitaletxea) liburuan bere senar ohiaren tratu txarrak eteteko prozesua harilkatu du eguneroko indarkeria matxisten kontakizunekin, eta bere bizitzako emakumeekin batera eraiki duen orainaldi gozagarriaren pasarteekin.

 JUNE FERNANDEZ  ESEL FOTOGRAFIA

**I**rantzu Varela (Portugaleta, 1974) indarkeria matxisten eta autodefentsarako eskubidearen inguruan sensibilizatu du hamaika formatutan: *Faktoria Lila* bloga (*Ya no soy esa* fanzinean bildu zuena), *Él nunca me pegó* dokumentala, *El Tornillo*-ko bideoak, *Pikara Magazine*-ko artikuluak, *Villana* eta *Señoricidio* umorezko bazarriketak... Orain, eleberri autobiografikoa baliatu du, "asmo pedagogikorik gabe sortu duen lehen gauza" dela azpimarratu badu ere.

**“Autopornografia” deitu diozu zure eleberriari. Zer ematen dizu lotsa gehien?**

Soilik amodioa adierazteko orduan naiz lotsatia. Nire kezka nagusia da maite nauen jendeak sufritzea gauza jakin batzuk irakurtzean. Baina liburuaren asmoa da erakustea, hau guztia gertatu bazitzaidan ere zoriontsu, pozik eta lasai nagoela.

Oinazeak ondare bihurtzen saiatu naiz, jendearengana iritsiko den zerbait sortuta. Pasarte batzuk minduta nengoenean idatzi nituen, baina ezin izan dut liburua argitaratu zauriak itxi arte.

**Nola lortu duzu zauriak ixtea?**

Zauriak eta orbainak bereizten ditut. Denborak berak ez du ezer sendatzen; feminismo asko, solasaldiak, lagunak eta terapia behar izan dut. Gakoak dira errua kentzea eta zergatik geratu nintzen azaltzen duen testuingurua ulertzea. Berrito gertatuko ez zitzaidala bermatu dudanean idatzi dut liburua.

**Sylvia Plath eta Virginia Woolfen suizidioak ekarri zizkidan gogora nire amak behin, argudiatzeko feminismoak zoritxarrekoak egiten gaituela. Zer erantzungo zenioke?**

Zuzu Angel diseinatzailea Brasilgo diktadura militarren aurka nabarmendu

zen semea bortxaz desagertu ondoren, eta zera esan zuen: “Zein ondo bizi garen ezer gertatzen ez den itxurak eginez”. Emakume askorentzat biziraupen estrategia indibiduala da gertatzen ari zaiena ikusten ez duten itxurak egitea. Esan ohi dut emakume batek gizon bati obeditzen ez dionean, beste emakumeei gogorarazten diela haien obedientzia. Feminismoak argitasuna ematen dizu, eta zure bizitza berrikustea da mingarriena: harreman sentimentalak, familiarrak, sexualak... Horrek haserre handia sortzen du, baina amorrua ondo kudeatzen ikasten ari garela uste dut.

**Nola desaktibatzen da biktimaren estigma?**

Zorionez, gure indarkeria-esperientziei buruz hitz egiteko moduak bira izugarria eman du azken zortzi urteotan. Lehen lotsaz egiten genuen, intimitate guneetan; orain gai gara barre artean konpar-



"Nire lagun 'mariokerrak' omentzen ditut, baina baita queer burbuila feministatik kanpoko nire betiko lagunak ere. Haiei esker ez naiz esnob huts bihurtu".

titzeko. Neronek, arestian, horri buruz idazten nuen mozkortuta edo bereziki asaldatuta nengoenean. Lotsa ematen zidan onartzeak helduaroan gertatu zitzaidala, prestakuntza feminista banuen ere. Gaur egun modu gogoetatsuan partekatzen ikasi dut, oka egin beharrean, eta "niri ere gertatu zait" erantzuten didazue askok. Zuri gertatu ez bazaizu, aparteko zortea izan duzu, edo akaso ez duzu zure bizitzaren irakurketa kritikoa egin. Bi psikologok esan zidaten nire dokumentaleko protagonistok torturaren

“ ”

**Urrunegi joan gara  
diote. Non daude  
feminista erasotzaileak?  
Non daude gizon  
izutuak? Erreakzio  
matxista dago, bai**

biktimak bezala hitz egiten genuela. Bi gaien kasuan, indarkeria horiek deslegitimatatu dituen gizartea eraiki dugu, eta ondorioz biktimoak lotsa gutxiago ematen digu testigantza emateak. Lan pertsonala izan da, baita kolektiboa ere.

**Ana Requena *Intensas* liburuan azaltzen du emakumeok erru sentsazioan sozializatzen gaituztela, eta gizonak, berriz, amorrutan. Amorrua aldarrikatzen duzu zuk.**

Emoziorik iraultzaileena da, erreakzionatzera behartzen zaituelako. Tristurak eta erruak, aldiz, hondoratu egiten zaituzte. Liburua erreparazio ariketa bat da, baita mendekua ere.

**Liburuan kontatzen duzu bi senar izan zenituela: bata ona eta bestea txarra. Zergatik ez duzu senar onari buruz hitz egiten?**

Benetan uste al duzu munduak tipo jatorren kontakizun gehiago behar dituela? Imajinatzen duzu ijito feminista bat ijito ez diren jatorrei buruzko liburu bat idazten? Esplotatzaile ez izaten saiatzeak ez zaitu on egiten, gizatiar eta duin baizik.

**Aldiz, zure familiako gizonak onik ateratzen dira.**

Gizon bikainak ditut inguruan, esker onetan aipatu ditut. Nire aitak lan handia egin du bere alaba, emaztea eta koinatak esaten duguna ulertzeko. Izugarri aldatu da berrogei urtetan, lagunenez beste aita batzuk bezala. Badira aldatu ez direnak ere, edo okerrera doazenak.

**Señoro ezagunak agertzen dira liburuan. Bereziki, erraz identifikatu ditzakegun tertulianoak. Zalantzarik edo beldurrik izan duzu haiek seinatzeko orduan?**

Haien izen-abizenak orri-oinean zehazteko gogoia nuen baina, zorionez, nire abokatuak ez dit utzi. Edonoren aurrean sostengatu ditzakedan kontakizunak dira. Bere garaian zerbait puntuala egin zuen batek deitu zidan bere ardura onartzeko, eta poztu egin nintzen. Norbaitek liburu irakurri, interpelatua sentitu eta "nola izan nintzen hain kirtena!" pentsatzen badu, primeran. Baina agertzen diren matxiruloak bost axola zaizkit. Salatu nazatela!

**Polizia batek esan zizun bere lankideen erdiak gorroto zintuela eta beste erdiak zurekin larrua joko lukeela. Erakargarritasun-**



### gorroto dinamika ikusi dut feminista askorekiko.

Une hartan gazteagoa eta argalagoa nintzen. Seguruenik *villana* erakargarria nintzen haientzat, bai. Orain dezente atera naiz gizon hetero batentzat desiragarria den moldetik, eta gorrotatzen jarraitzen naute. Emakumeok hipersexualizatzea gu politikoki desaktibatzeke modu bat da. Ez bagaituzte *follable* gisa sailkatzen emakume kategoriatik kenduko gaituzte. Esan didate ez naizela bortxagarria! Baina gezurra da: bortxaketaren ardatza ez da desira sexuala, boterea baizik. Egon badaude umeak eta animaliak bortxatzen dituzten matxiruloak.

### Uste duzu *Me too*-tik tentu handiagotz ibiltzen direla plazandreak jazartzeko orduan?

Bai, baina ez dut uste inflexio-puntua *Me too*-a izan denik, kontzientzia feminista-ko testuinguru politiko askoz zabalagoa baizik. Emakume askok gaitasuna garatu dugu jarrera horiek seinatzeko, eta gizon askok hausnartu dute. Beste batzuk txundituta daude, nahi zutena inpunitatez egitera ohitu zirelako: gure gorputzei buruzko iruzkin sexistetatik, baimenik gabe ukitzera eta bortxatzera.

### Justizia patriarkalaz haratago, zein beste bide ikusten dituzu indarkeria matxistak salatzeke?

Iruditzen zait autodefentsa kolektiboa antolatuta behar dugula, ez-punitibista eta bidezkoa dena. Zaila da, baina guztion artean ikasten ari gara. Erreakzioa antolatzeaz gain, espazio segurua zer diren pentsatu behar dugu. Gustuko dut Rote Zoraren kontzeptu bat: kontrabiolentzia. Haiak ez zuten inor hil, baina sabotajeak egin zituzten. Emakume-taldeak osatzeko ideia gustatzen zait, baina saiatu behar gara molde patriarkalak ez errepikatzen, salaketa jartzen duten pertsonak zaintzen, lintxamenduak saihesten...

### Baina posible ote da bidezkoa eta ez-punitibista den kontrabiolentzia gauzatea?

Ez dakit, erretorika aldatu dezakegu behintzat, gaueko manifestazioetan zuziekin ateratzen garenean bezala. Hasteko, uste dut emakume guztiek, pertsona ez-binarioek eta LGTBlekin autodefentsa feminista ikasi beharko luketela, beldurra alde batera utzita erasoei erantzuten hasteko. Erasotzaileek, aurre egiten dietela ikusita, elkarri jakinaraziko

diote. Esango nuke neurri batean gau giroko dinamika aldatu dela: 1990eko hamarkadan ipurdia ukitzen ziguten eta kikildu egiten ginen, baina orain errieta egiten dugu, ukabilkadaka ez bada. Hala ere, gauero geure burua defendatu behar dugu, eta gogaikarria da feministok eta bollerok parrandan *liantak* garelako sentitzea. Helduko da taberna hetero batean gure artean *perreatzeko* aukera izango dugun eguna?

### Batzuen ustez, kontrabiolentziatzeko erretorika arriskutsua da, gizon gazteak gotortzen eta harrotzen dituelako.


Assata Shakurrek ezin hobeto azaldu zuen: "Historian ez dago bere zapaltzaileen moralitasuna galdatuz askatasuna lortu duenik". Urrunegi joan garelako diote. Non daude feminista erasotzaileak? Non daude gizon izutuak? Erreakzio matxista dago, bai, gure eskubideen gainetik bizi nahi dutenen aldetik. Haien aiten eta aiti-ten bidea jarraitu nahi zuten, baina egungo neskek planto egin dute. Esklabotza abolitu zenean sortu zen Ku Klux Klan.

“ ”

**1990eko hamarkadan ipurdia ukitzen ziguten eta kikildu egiten ginen, baina orain errieta egiten dugu, ukabilkadaka ez bada**

### Emakume indartsu eta errebeldeen leinu baten parte gisa aurkezten zara liburuan.

Bai. Nire birramonak bere senarra etxetik botatu zuen 1923an. 25 urte zituen, eta bi seme eta alaba bat. Senarra, apustuan, josteko makina kartetan jokatzeko ari zen, eta nire birramonaren diru-iturria horixe zen. Hortik nator ni: tratatu txarren bizirauleak, ikasketarik gabeko etxeandreak (jakin-min amaigabea zutenak), Zierbenatik Santurtzira edo Bilbora oinez joaten ziren sardina-saltzaileak... Emakume *saltseraz* inguraturuta hazi naiz, zeinak patriarkatuaren aurrean plazererako eta gozamenerako gaitasunari eutsi dioten.



### Oso presente dago klase kontzientzia.

Halabarrez. Aita fabrika bateko langilea zen eta ama etxeandrea. Ulertu dut bizitzako aukera guztiak aprobetxatu behar nituela, nire klasekook ez baititugu barra-barra jasotzen. Orain uste dut zilegi dela bizimodua hobetzeko irrika izatea, baina inor esplotatu gabe. Unibertsitatean konturatu nintzen mundu guztia ez zela gu bezala bizi; badagoela bi bainugela eta udako etxea dituen jendea. Jende horren ardura da ulertzea izan dituzten baldintzak pribilegioak direla, eta horiek guztion onerako erabilteza.

### Lesbianismoa aldarrikatzen duzu aukera politiko gisa. Benetako irtenbidea iruditzen zaizu emakume gehientzat?

Nire bizi-esperientzia subjektiboaz ari naiz, heterosexuala izaten gogor saiatu zen emakume batena, bi senar izateraino. Emakumeek erakarri ninduten txikitatik, eta harreman lesbiko bat izateko aukera izan nuenean, egundoko lasaitasuna eta askapena eman zidan. Desio maskulino heterosexualaren orbitatik irtetea da bizitzan gertatu zaidan gauzarik onena. Publikoki lesbiana naizela esatea ardura kontua iruditzen zait, nire ikusgarritasuna kontuan hartuta. Nire ustez, desio lesbikoa gauzatu nahiko lu-



“Nire birramonak bere senarra etxetik bota zuen 1923an. 25 urte zituen, eta bi seme eta alaba bat. Senarra josteko makina kartetan jokatzen ari zen, eta nire birramonaren diru-iturria horixe zen. Hortik nator ni”.

keten emakumeak gehiago dira lesbiana gisa aurkezten garenak baino. Guztiaren konponbidea dela? Ez, noski. Gainera, lesbianismo politikoa belaunaldi jakin bati dagokiola esango nuke. Gazte bisekual asko ikusten ditut, monosexualitatea *horterada* iruditzen zaienak.

**Sare sozialetatik jaso dituzun gorroto-mezuen salaketak artxibatu dira. Etsigarria da.**

Beno, nik uste dut kontzientzia handiagoa dagoela eta ‘Soilik baietz da baietz’ legea badela aurrerapausoa. Edonola ere, ikusi dut erantzunak aktibatzen direla feministak ez diren ageriko emakumeei gertatzen zaienean. Facebookeko erabiltzaile batek Ines Arrimadasi bortxaketa anizkoitza desiratu zionean, hurrengo egunean lanetik kaleratu zuten. Aldiz, ni izanda ez dute tramiterako onartu, ezta felazioak egiten dituzten neskato adingabeen bideoak bidali dizkidatenean ere, eta hori [haurren pornografia] delitua da. Esperimentua egin beharko litzateke ikusteko zer gertatzen den nik jasotzen ditudan mezuak EA]ko politikari batek jasoko balitu, adibidez.

**Lodifobia nabarmentzen da jasotzen dituzun gorroto-mezuetan.**

“ ”

***Gustuko dut Rote Zoraren kontzeptu bat: kontrabiolentzia. Haiek ez zuten inor hil, baina sabotajeak egin zituzten***

**Liburuaren kontrazalean aktibista lodi gisa izendatu duzu zure burua.**

*(H)amor gordo* liburuan parte hartu ondoren jabetu nintzen zapalkuntza horri ematen diogun espazio politiko urriaz. Ni neu “gizentzeko beldur naiz”-tik “gizentzat hartzen naute”-ra pasatu naiz berriki. Orain lodi gisa izendatzen dut nire burua, eta jendea deseroso sentitzen da.

Roxanne Gayren *Hambre* liburua gomendatzen dut, beltza, bollera eta oso lodia da bera. Nire loditasuna eraman-garria da; aulkietan sartzen naiz, ez dut mugitzeko arazorik, erakargarria naiz askorentzat... Baina politizatuta egonda ere, nire gorputza aldatuko nuke.

**Kapitulu batean Madonna omentzen duzu. Zahartzea askatzailea da?**

65 urterekin eman berri du gizateria-ren historiako kontzerturik handiena: bi milioi pertsona Copacabanako hondartzan. Zera diosku: “Hor konpon, atso libre bat naiz ni”. Tira, zahartzea ez zait berez askatzailea iruditzen, ez bada ikasteko aukerak pilatzen zaizkizulako. Patriarkatuari men eginez hazi zara, gero desobeditu duzu, eta zahartzea desobedientzia handiena da. Gorputzeko aldaketek aztoratzen naute, baina badakit ezin dudala denboraren kontra borroka egin. Espero dut bizitza osoa ez ematea ideal baten atzetik sufritzen.

**Argi uzten duzu liburuaren hasieratik amaierara lagunak direla salbatzen gaituztenak.**

Zorionez, feminismoari, LGTBI eta queer borrokari esker, balioan jarri dugu aukeratutako familia edo, Violeta Assiegok dioen bezala, familia logikoa (biologikoa ez dena). Nire lagun *mariokerrak* omentzen ditut, baina baita queer burbuila feministatik kanpoko nire betiko lagunak ere. Lurreratzen naute, Irantzu Varela baino gehiago Irantzu axola zaielako. Haiei esker ez naiz esnob huts bihurtu. ●



## Luis Larrañaga

# “Heziketa fisikoa eskolako ikasgai bat gehiago den unetik, jasotzen duen trataerak ezin du hau izan”



Funtsezko konpetenzietatik ezabatua, Berritzeguneen birmoldaketan zokoratua, ordu kopuruetan gutxietsia... Heziketa fisikoa EAEn garai txarrak bizi dituela eta administrazioak baztertuta dituela salatzeraz etorri da ARGIAra Luis Larrañaga “Pizti” heziketa fisikoko irakaslea: “Gure lana egiten uztea, eta horretarako, gainerako arloei ematen zaizkien baliabideak, aukerak eta ofizialtasuna ematea, ez dugu gehiago eskatzen”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

### Bigarren mailako ikasgai izatera ohituta zaudete?

Inoiz ez dugu erraza izan. Soin Hezkuntzaren Aldeko Taldea (SOHAT) duela hamazazpi urte sortu genuen eta ordutik daramagu borrokatzen beste irakaskuntza arlo batzuek borrokatu behar ez dituzten eskubideak, nekagarria da. Ikastetxean bertan sarri arloaren defentsa egin behar izaten dugu, eta gero gainera, administrazioaren aurrean sekulako lana egin behar dugu heziketa fisikoren onuzeraz konbentzitzeko. Administrazioaren erantzuna izaten da ildoak Europak markatzen dituela eta hau eta beste, baina borrontate kontua da, zeren adibidez, Heziberri plana egin zen garaian Heziberriko curriculum diseinatzen zebilen Xabier Garagorriekin-eta hitz egin genuen eta lortu genuen oinarritzko konpetenzien artean konpetentzia motorra aintzat hartzea, eta orduan ere berdin-berdin markatzen zituzten ildoak Europatik.

Beste borroka historiko bat da heziketa fisikoa ikasgaiarentzat ordu kopuru duina lortzea gure lana txukun egin ahal

**“Konpetentzia motorra desagertu da, ofizialtasuna kendu digute, Berritzegunean genuen aholkularia kendu dute, ebaluazio diagnostikoetan ez gara existitzen... Benetan zer nahi da egin heziketa fisikoarekin?”**



izateko, galtzaile ateratzen baikara beste enbor-ikasgaien aldean. Lehen, gutxienez ordu eta erdiko tartea eskaini behar zitzaion heziketa fisikoari, eta duela bi urte, Eugenio Jimenez Eusko Jaurlaritzako ikastetxe eta Plangintza zuzendariarekin bildu eta lortu genuen Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailan gutxienez hiru ordu legez bermatzea heziketa fisikoari. LH3-4 mailetan bi ordu dira gutxie-

nekoa, LH5-6 mailetan, ordu eta erdi, eta DBHn bi orduko minimoa mantendu da. Bada, legea hobetzea lortu dugun arren, heziketa fisikoko 260 irakaslek betetako galdetegiaren ondorioa da hiru orduko gutxieneko hori ez dela betetzen ikastetxe askotan. Sarri, saioak ez dira ordubete-koak, eta beraz guztira ez dira hiru ordura iristen, eta badira oraindik ere lehengo ordutegi irizpideak jarraitzen dituzten eskolak eta astean bi ordu bakarrik ematen dituztenak. Ikuskaritzak jarraipen zehatza egitea eta adosturiko gutxienekoak betetzen direla bermatzea eskatzen dugu. DBH eta Batxilergoan ere, heziketa fisikoari lotutako hautazko ikasgaiak ez dituzte eskaintzen hainbat ikastetxetan, eskaintza egitea derrigorrezkoa den arren.

Panoramaren beste adibide bat: ebaluazio diagnostikoan heziketa fisikoa inoiz ez da sartu. Eztatuidatu dezakegu ebaluazio diagnostikoa egiteko moduz, baina bertan parte hartzen ez baduzu, inoiz ez zara gero azalduko ikastetxeetan hobetu beharreko arlo gisa. Eta hainbat arlo indartzeko politikak martxan jartzen direnean, gureak are baztertuago bukatzen du, mariaren maria bihurtzeko arriskuan.

### Espainiako Estatuan indarrean den LOMLOE legeak zartakoa eman dizuetela salatzen duzu.

LOMLOEk funtsezko zortzi konpetentzia zerrendatzen ditu eta konpetentzia motorra desagertu egin da zerrendatik, inongo argudiorik eman gabe kendu dute. Horrek derrigortzen gaitu, esaterako, heziketa fisikoan beste konpetentziak neurtzera (konpetentzia soziala, ikasten

ikastekoa...), eta horien berri ematen dugu ebaluazio bileretan, baina konpetentzia motorraren inguruko informazioz ez dugu ematen heziketa fisikoan, pentsa zeinen zentzugabea, berez heziketa fisikoaren eginkizuna delako ikasleek konpetentzia motorrak garatzea. Ikaslea bere gorputzaren irakaslea bihurtzea da gure nahia, edozein erronka motorrari arrakastaz erantzun ahal izateko. Heziketa fisikoaren bidez, ikasleak ezagutzen du bere burua eta ikasten du inguruarekin eta beste pertsonekin harremanak izaten. Funtsezko konpetentzia da. Aldiz, zenbaitetan, heziketa fisikoa ulertzen da ikasgai esanguratsuen atsedean ordu gisa edo patioaren luzapen bezala, entretenimendu hutsa. Eta ez da hala: programazio bat dugu, landu beharreko hainbat trebezia, inteligentzia motorra garatzen ikasi behar du ikasleak.

### **Eta derrigorrezko ikasgai izanik, nolatan ez dago konpetentzia motorra funtsezko konpetentzien artean?**

Hezkuntzan erabakiak ez dira neutralak, atzetik beti dago asmo politiko bat, gizartea eta ikaslea ikusteko modu bat: txikitatik prestatu nahi dira etorkizuneko langile izateko, baina oinarritzko hezkuntzan ikasleen garapen orokorrak izan behar luke iparra. Musikan ere astean 45 minutu edo ordubeteko saioa dute. Benetan nahikoa dira 45 minutu musikan, ikaslearen garapen orokorra baldin bada helburua?

Gainera, kirola sarri kontsumorako produktu gisa hartzen da, duelura gaude ohituta, irabazle eta galtzaileetara, onak eta txarrak, aukeratuak eta baztertuak. Estilo hori ongi txertatzen da gure gizarte eremuan, eta gu ez goaz norabide horretan.

### **Beste zartako bat: EAEko ikastetxe publikoei berrikuntza eta aholkularitza zerbitzua ematen dieten Berritzeguneak murriztu eta Bilbon zentralizatu duten Berritzegune Nagusiak hartu du indarra. Eraldaketa zuen kalterako izan dela diozu.**

Ikastetxeetako heziketa fisikoko irakasleak mintegietan bildu izan gara, gogoetatzeko, beharrak eta prestakuntzak bideratzeko, eta baita Heziberrik eta LOMLOEk eskatzen dizkigun programazioak egiteko ere. SOHATen webgunean daude programazio hauek, denon eskurara, eta euskaraz dagoen material bakarra



**“Heziketa fisikoan beste konpetentziak ebaluatzen ditugu (konpetentzia soziala, ikasten ikastekoa...), baina konpetentzia motorraren inguruko informazioz ez dugu ematen, pentsa zeinen zentzugabea”**



da. Orain, Berritzeguneen birmoldaketa ailegatu da eta hara non esan diguten mintegi horiek jada ez direla ofizialak izango, eta biltzeko guneak ere kendu dizkigute. Horri gehitu Berritzegune Nagusia hainbat eremutan banatu dutela eta eremu horietako bakar batean ere ez dela kabitzen heziketa fisikoa. Are gehiago, heziketa fisikoaren inguruan aholkatzeko eta formazioak bideratzeko Berritzegunean zegoen pertsona desagertu egin da aurten, Berritzeguneen birmoldaketa prozesuan.

Horretaz guztiaz hitz egiteko, bi urte pasa daramagu Berritzegune Nagusiko

Amaia Agirre hezkuntza berrikuntzaren zuzendariarekin biltzeko eskatu eta eskatu, eta hitzordurik gabe jarraitzen dugu. Berritzegune Nagusiko Birginia Pozorekin ere jarri gara harremanean, eta ez dugu biltzea lortu. Gure lana egiten uztea, eta horretarako, gainerako arloei ematen zaizkien baliabideak, aukerak eta ofizialtasuna ematea, ez dugu gehiago eskatzen. Gure arteko koordinazioa, programazio guztia, dena gure ordu libreetan egin beharra daukagu, ez zaigu aitortzen egiten dugun lana.



Adibide bat dira Heziketa fisikoko topaketak: teoriarik Berritzegunearekin batera antolatzen ditugu, baina ez dago lankidetzarik, gero eta bakartuago gaude antolakuntzan, eta topaketa arrakastatsuak dira, iaz esaterako 350 irakasle bildu ginen, horri bizkarra ematen ari dira.

Konpetentzia motorra desagertu da, ofizialtasuna kendu digute, Berritzegunean genuen aholkularia kendu dute, ebaluazio diagnostikoetan ez gara existitzen... Benetan zer nahi da egin heziketa fisikoarekin eta ikaslearen garapen motorraren? Zeren eskolako ikasgai bat gehiago den unetik, jasotzen duen trataerak ezin du hau izan. ●



## “Baimenik eskatu gabe interbentzio kirurgiko ugari egin zizkidaten”

Aktibista intersexa\* eta DJa da Marikarmen Free (Baena, Espainia, 1984). 2003. urtean sistema psikiatrikoaren kontrako borrokan hasi zen, eta gaur egun bide beretik doa Insania kolektibokoekin. Martxoan, Iruñeko Katakraken egindako “Zapalkuntza psikiatrikoa eta eromenaren autogestioa” jardunaldietan parte hartu zuen. Salatu du haur intersexei euren gorputzarekiko autonomia kentzen dietela.

 OLALIA L. GARAIALDE  M. F.-K UTZITAKOAK



Marikarmen Free

**T**xikitatik ezagutu du sistema psikiatrikoa Marikarmen Freek. Bi urterekin, Klinefelterren sindromea diagnostikatu zioten; hau da, XXY kromosomekin jaio zela esan zieten euren gurasoei. Medikuek diagnostiko hori kirurgiaren eta psikiatriaren artean kokatzen zutelaz azaldu du: “Medikuek ebakuntzak egiten zituzten, baina aldi berean, psikiatreek intersex izatea gaixotasun mentalen barruan sartzen zuten, esaten zutelako genero-inkongruentzia bat zela”. Hori dela eta, sortu zenetik, informatu gabe eta baimenik eskatu gabe interbentzio kirurgiko ugari egin dizkiote eta prozesu hormonaletatik pasatzera behartu dute.

Prozesu horien helburua da haur intersexak emakume edota gizon binomioan sartzea: “Gaur egun haur intersexen gorputzei egindako mutilazioa gehiago jartzen da mahai gainean edo, behintzat, eztabaida badago”. Hala ere, salatu du joera izan ohi dela haurrak konturatu baino lehen ebakuntzak egitea, eta hori “akats handia” dela: “Hazi

“Ustezko gaixotasun bat sendatzeko botikak eman, eta gure gorputzetan probatzen dituzte”

ahala zure gorputzak ez du zertan jarraitu medikuak hartutako bidea. Modu askotara garatu daiteke gorputza eta hori ezin da jakin haurra jaiotzen denean. Inposizio bat da: ulertzen ez duzun gorputz batean zaude eta ezin duzu aldatu norbaitek erabaki duelako zure partez”.

Marikarmen Freeren kasuan, esan zioten gorputzean zituen orbainak eta hartu behar zituen hormonak bihotzean zeukan gaixotasun baterako zirela: “22 urterekin ikusi nuen ez zela egia, ez zeukalako zentzurik. Orduan, ez nuen ulertzen zer gertatzen ari zen nire gorputzean, eta momentu horretan erantzunak zituztenak mantala zuri bat eramaten zuten pertsonak ziren. Ez nuenez nire gorputza ulertzen, ez nuen gorputzarekiko aginterik”.

Diagnostiko horrekin batera, beste diagnostiko batzuk ere etorri ziren. Horren ondorioz, ikusi zuen “geroz eta gehiago” eragiten ziotela diagnostikoek, eta “pisu handia” zutela egunerokoan: “Ez nintzen gai gertatzen zitzaidanari hitzak jartzeko eta politizatzeke”. 15 urte ingururekin izan zen hori.

### EZJAKINTASUNA

Horrek guztiak txikitatik disforia, ezjakintasuna eta zalantzak eragin dizkio. Hasieran, LGTBIAQ+ kolektiboetara hurbildu zen uste zuelako sentitzen zuela sexu orientazioarekin lotuta zegoela: “Kolektibo horietan denak ziren gizon gayak, agian bazen oso ikusezina zen lesbianaren bat eta ez zegoen pertsona transik. Gainera, ikusi nuen euren zalantzak beste gorputzekiko desiraren inguruan zirela, eta ez horrenbeste norberaren gorputzaren inguruan”.

Ostean, mugimendu feministan sartu zen. Momentu horretan, batez ere eztabaidatzen ziren gaiak honakoak ziren: emakume eta gizon kategoriak, eta la-

naren eta espazioaren banaketa. "Gorputzak sozialki zein sinbologia duen erdigunean jartzen hasi zen mugimendu feminista". Hala ere, ez zuen bere lekua aurkitu.

Trans kolektiboak ezagutu zituenean, Bartzelonako Guerrilla Travolaca kolektiboa bereziki, ikusi zuen batez ere mutil transek kontatzen zituzten gauza batzuen eta berak bizitakoaren artean lotura zegoela: "Nire gorputzean zeuden orbainek ez zutela zentzurik ikusten hasi nintzen, hitzak aurkitzen eta neure burua babes-teko tresnak garatzen".

### PSIKIATRIAREN ABOLIZIOA

Prozesu horietan kontaktu zuzena izan du sistema psikiatrikoarekin eta indarkeria handia pairatu du. Marikarmen Freeren arabera, funtzionatzeko eta jendearekin harremanak izateko moduarengatik, psikiatria "ideologia" bihurtu da: "Uste dut psikiatria giza-terriaren aurkako krimenak egin

dituela onartzea baino, min guztia erreparatzeko modurik etikoena psikiatria abolitzea dela".

Gaineratu du psikiatria bilatzen duena dela "apurtuta dauden gorputzak ahalik eta produktiboen" bihurtzea kapitalismoarentzat: "Ez dauka zentzurik. Ustezko gaixotasun bat sendatzeko botikak eman, eta gure gorputzetan probatzen dituzte ikusteko ea baten batek on egiten digun". Gaineratu du horrek lotura handia duela bizi baldintzekin: "Gorputzak babesa eta komunitatea bilatzen duten organismoak dira. Modu konkretu batean jokatzera, nahi ez dutenean irribarre egitera, egunero goiz esnatzera eta beste gauza batzuetara behartzen ditugunean errebelatu egiten dira". ●

*\* Intersex hitza intersexual hitzaren laburdura da eta ahalduzko erabiltzen du elkarrizketatuak. Berak eskatuta, hala erabili dugu artikuluan.*

## GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Begiak. Pertsona bat ezagutzen dudanean batez ere begiei erreparatzen diet. Horrek eragiten dit pertsona batek sentsazio onak edo txarrak transmititzea eta pertsona hori gustatzea edo ez. Ziurrenik ikasitako hipotesiak dira, baina sentitzen dut begiekin gauza asko jakin daitezkeela. Maitemintzearen akatsa egiten dudanean, begien filtrotik pasatzen naiz. Begiek gauza asko egiten dituzte: gorritu, negar egin, albo batera begiratu, argi gehiegi dagoenean itxi eta iluntasunean ireki. Inoiz ulertuko ez dudana funtzionamendu konplexua daukate".





# EKOFEMINISMOAZ, MOTOZERRA ESKUTAN



MARTA BARBA GASSÓ

**D**uela hilabete inguru, unibertsitateko kide gizonezko baten liburu aurkezpenean ginela, egoera bitxi samarra gertatu zitzaigun. Ekologiari buruzko liburua zen eta erreferentzien artean hainbat pentsalari ekofeminista zeuden. Egileak, baina, inongo momentuan ez zuen aipatu pentsalari horiek feministak zirenik, eta, beraz, ez zion erreferentziarik egin pentsamendu-korrante ekofeministari. Aitortza falta horri buruz galdetu nionean, halako batean, "pentsalari femeninoak" aipatu zituen. Lanak izan nituen aurpegi neutroari eusteko. Noski, ulertarazi genion kontua ez zela pentsaera femeninoa zutenik (norbaitek ba al daki hori zer den?), baizik eta ikuspegi feminista zutela eta ez ziola horri aitortzarik egin.

Oker horren atzean arrazoi asko egon daitezkeen arren, askotan kezka sortu didan kontu batera eraman ninduen ni. Ekofeminismoa, maiz, emakumeekin lotua izan da, eta emakumeak feminitatearekin. Beraz, ondorio logiko-ziztrin bati jarraika, ekofeminismoa eta feminitatea eskutik azaldu zaizkigu askotan. Ekofeminismoarekin lotu diren emakumeen balizko-berezko enpatia, naturarekiko gertutasuna, bizitzarekiko konexioa eta abarren zerrenda luzea datorkit burura. Edo amatasunak, ugalketa sexualak eta heterosexualak, eta familia nuklearrak ekofeminismoan hainbatetan izan duten zentraltasuna.

Horrek guztiak, besteak beste, ekofeminismotik urrun mantendu nau urtetan. Nire egunerokoak zenbait ekofeminismoren ikuspegietatik oso gertu kokatu arren, ez dut sentitu feminitate



Amillubi proiektuan urte hasieran egin zuten makinaria ikastaroko argazkia.

horrekin identifikatzen ez garen pertsonentzat tokia zegoenik. Azken urteotan, baina, pixkanaka hainbat ekofeminismotara gerturatzen joan naiz, inspiratzaile izan ditudan irakurketen bidez, zein han-hemenka sortu diren ekimen eta ekintzen bidez. Bide horretan ulertu dut ekofeminismoa ez dela halabeharrez feminitatea eta berezko-balizko emakumetasun batekin lotu behar. Ekofeminismo batzuek ikuspegi esentzialista izan badute ere, denek ez dute izan, eta beste batzuen begirada interesatuak izan dira ekofeminismoa, orokorrean, ikuspegi partzial bakar horrekin lotu dutenak. Tamalez, horren ondorioz ekofeminismoaren eragin-esparrua mugatu da eta horrekiko mesfidantzak elikatu dira.

Baina ekofeminismoan edo horren bueltan bestelako praktika, diskurtso eta esperientziak ere aurkitu ditut eta aurki ditzakegu, inguruari parez pare eta arduraz begiratzeaz gain, feminitate heteronormatiboa hausten eta hortik askatzen lagungarri izan ahal zaizkigunak. Gure iruditegian azken horien falta dugulakoan nago. Duela hilabete batzuk kide nekazari batek galdegiten zuen zer-

gatik ekofeminismoari lotutako ekimenean ez zeuden motozerra-mekanika edo traktore-mekanika tailerrak. Non daude makinak erabiltzen dituzten emakume edo genero-disidentek ekofeminismoaren iruditegian? Eta, non daude elkarbizitza eta zaintzak familiatik kanpo, era komunitarioan, eta bestelako animaliekin batera antolatzen dituztenak? Edo, Itoitzeko kableen mozketa ekimenaz harago, zenbatek entzun du zerbait borroka berean bi emakumeen artean egindako sabotaiei buruz?

Nire iritziz, ekofeminismoak biozida eta ekozida den sistema kapitalista, kolonialista, arrazista eta matxistari aurre egingo badio, sistema horren oinarri diren heteroarautik eta genero normatiboetatik at izango da. Badugu nondik edan horretarako, bai pentsamenduaren arloan, bai ekintzaren eta herri mugimenduen arloan; baina, nago, batzuetan, gure erreferentzia propioak identifikatzea eta aitortzea falta zaigula. Eta hori elikatzen ez dugun bitartean, pentsalari ekofeministak pentsamendu femeninoarekin nahasten jarraituko du askok eta askok. ●

## A ZE FAUNA!

# ITSAS DORTOKAK LOZORROTIK ESNATU OTE DIRA EUSKAL KOSTALDEAN?



**NAGORE ZALDUA MENDIZABAL**  
ARANZADIKO KIDEA

**U**dako solstizioa gerturatzeko ari den honetan, euskal kostaldean itsas dortokak ikusteko aukerak ugari dira. Gure uretan ezagunena Egiazko kareta (*Caretta caretta*) da. Ale helduen oskolaren batezbesteko tamaina, 120 cm-ko luzera zuzenera eta 200 kg-ko pisura iritsi daiteke. Gorritzeta edo marroixka du gainaldea, azpialdea, berriz, horixka. Ale helduek buru handia dute, moko eta lepo sendokoa, elikadurara egokitua. Dieta aldakorra duen espeziea da, bizi-etaparen arabera; gaztaroan, pelagikoa eta ahal dela haragijalea; helduaroan, berriz, neritiko eta orojalea izatera igarotzen da eta izaki lirdingatsuen harrapari bikaina da.

Itsas dortoka guztien modura, Egiazko kareta biodibertsitatearen kontserbazioa sustatzeko bandera-espeziea da: erakunde eta gizartearen arreta erakartzeko sinbolo izaki, espeziea kontserbatzeko, itsas habitata babesteko eta bioaniztasunaren kontserbazioa sustatzeko erabiltzen da. Horrela, gurean ere haren agerraldiak maiz zabaldu dira telebista eta sareetan; azkenak Santio hondartzan (Zumaian), Donostia eta Orio bitarteko uretan, Ondarroan, Lekeitioan, Kontxako badian...

Euskal kostaldean espezie honen ale gazteak dira ohikoenak. Ozeano Atlantikoan Golkoko Itsaslasterrak (Ozeano Atlantikoan zehar, Mexikoko Golkotik Ipar Europako kostalderranzko ur korronteak) bultzatuta etorri ohi dira Sargazoen Itsaso ingurutik, bidegurutzeren batean korrontetik irteten diren arte: Madeiran, Kanariar uharteetan, Cabo Verden, Afrikar kostaldean... Batzuetan, aldiz, bidegurutze okerrean irten eta ur hotzagoetara helitzen dira, Bizkaiko Golkoko uretara kasu. Espezie honetako ale helduek haien berrezko bidetik kanpora bultzatzen dituzten korronteetara aurre egiteko indarra dute; ez,



AITOR LEIZA

ordea, gazteek, eta horregatik, dortoka txikiak dira gurera maizago iristen direnak.

Izan ere, itsas dortokek, migrazioen birtartez, ur hotzak saihestu ohi dituzte ur beroagoetarantz mugituta. Uraren tenperatura bat-batean jaistean edo korronteen ondorioz eskualde hotzagoetan aurkitzen direnean, ordea, ale helduek, ugaztunetan ezaguna den hibernazio edo neguko lozorroaren antzeko mekanismoa dute, brumazioa deiturikoa. Brumazioan, itsas dortokak ez dira hain aktiboak, arnasketa ia guztiz murrizten dute eta gutxieneko metabolismoa mantentzen dute. Hartzak neguko lozorroan nola, dortokak itsas hondan egon ohi dira, geldirik, denbora luzez ur azalera arnas hartzera igo gabe (7 ordutik gora iraun dezakete). Horregatik, zaila izaten da itsas dortoka helduak negu garaian ikustea, brumazioan egongo baitira, migrazioan aldendu ez direnean.

Azken aste hauetan bisitatu gaituzten Egiazko kareta, ordea, ez dira Kontxako badian lozorroan egon. Etorkizunean, Kantauri itsasoak berea dena berreskuratzeke borrokan hiriarri hondartzarik kentzen ez badio, edo itsas mailaren gorakadak gure hondartzak urperatzen ez badiu, Egiazko kareten errute hondartza bat izanen dugu akaso, korronteek lur bazter hau eplitzen jarraitzen badute. Eta, nork

## EGIAZKO KARETA

*Caretta caretta*

**TALDEA:** Ornoduna/Narrastia.

**NEURRIA:** Oskola 120 cm eta 200 kg-ra iritsi daiteke.

**NON BIZI DA?** Errute hondartzetatik elikatzeke guneetara migratzen dute. Bizkaiko golkoan agertzen direnak, AEBetatik, Mexikotik eta Karibetik etorritakoak dira.

**ZER JATEN DU?** Gaztetan haragijalea da, itsas animalia txikiak jaten ditu; heldutan orojalea da, bereziki animalia oso gogorak jaten ditu, krustazeoak, moluskuak baita marmokak ere.

**BABES MAILA:** Eusko Jaurlaritzako espezie mehatxatuen zerrendan "kaltebera" babes maila du.

daki, agian Txingudiko badian hondoratu-ta lozorroan pasako dituzte neguak...

Gurean Ozeanoen Nazioarteko Eguna-ri (ekainak 8) aurre hartuz agertu diren dortoka gazte txiki hauek mezu bat ekarri digute: ozeanoak kontserbatzeko eta hobetzeko dugun erantzukizunari buruzko hausnarketarako aldarria. Pozgarria da bizirik eta osasuntsu daudela ikustea (askotan ez baita hala izaten), Kantauri itsaso espezie askoren bizileku dela egiaztatzea eta itsasoen zaintza eta babesa funtsezkoak direla azpimarratzea. Baina ez ditzagun banderak nahastu; hondartzetako gorri, hori eta berdeak ondo bereiztea komeni den bezala, ezinbestekoa da bandera-espezieak egoki zaintzea, eta ez, sarri gertatu ohi den bezala, zurikeria berdez aritzeko erabiltzea. ●



# UDABERRIA JAN DEZAGUN MIKATZETIK



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**A**rabako Errioxako udaberriak ez dauzkat ahazteko. Urte dezentetan harrapatu ditut sasoi horretako loraldi betean hango mahastiak eta harrigarria da; laburra da paisaia berria, baina iraupen motz horretan begien sabaia erretzen du eta ordura artekoak ahantzaztzen.

Landare bat da nagusi loraldi tzar horretan: berarakia, bekarkia edo berakaia (*Eruca vesicaria*). Loreak ubel koloreko zainak dituzten lau petalo zurizta-laru horiak ditu. Familiari lehen *Kruzifero* esaten zitzaion, lau petalo horiek gurutze itxura dutelako; egun, berriz, *Brassica-ceae*, aza jendea, aza txiki jendea alegia. Edertasunaren oinarrian ez al dira beti azatarrak ageri, eta beraien koloreak?

Berarakia errukula ere esan dakioke. Gaur egun izen horrekin ezagutzen den barazkien birramona da, eta duela milaka urte jaten zutenek ematen zioten izenetik datoz bai errukula eta bai bere familiako generoa den *Eruca* bera ere. Errukula izenpean espezie asko biltzen



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

dira, denak jangarriak, zein baino zein bereziagoak. Denek dute mikatz puntu lehorra eta pikantea, bixiegia ez bada ere. Geurera urte asko ez dela iritsi badira ere, Mediterraneo aldean milaka urte dira jaten dituztela; han afrodisiakotzat dituzte. Hemen zer eragiten ote digute? Hemen berri xamarrik dira, bai, baina amaren batean osatu dute jarraitzaile sutsu kofradia zabala, etengabe hazten ari dena. Neu tartean naiz, daitort; eta gure etxeko baratze bazterretan ez da sekula falta errukularik.

Niretzako onena, bere mikatz mingatzean ahogozagarriena, errukula hostoestua da (*Diplotaxis tenuifolia*). Gure mahaian ezagunenetakoa den jakia, egiten erraza eta jaten errazagoa, errukularekin egina da: hartu zezin zerra mehe bat (niretzako behikia onena), baratzean bildu berria den errukula mordoxka bat jarri erdian eta errailatuta edo ezpaletan ebakitako gazta bizi xamar bat gainean, zezinarekin txilipitu bat bezala bildu eta... Esango didazu.

Mediterraneora inguratzen bazara errukula hostoestuaz gain hosto boro-bila dutenak ere topatuko dituzu, besteak beste, berarakia bera eta *Diplotaxis muralis*. Denei errukula esaten zaie, tokian-tokian bat edo beste edo hurrengoa eskainiko dizute, bertan garatutako kulturak hautatu eta ondu duen espeziea eta barietatea. Eskaintzari ez egin uko inolaz ere, baldin baduzu ezta jainkoagatik ere. Errukula hostoestu fina eta ziapea (*Brassica juncea*) edo errefautxoan (*Raphanus raphanistrum*) hostoen arteko dasta du eta errefau minaren (*Armoracia rusticana*) eta japoniarrek ekarri diguten wasabiaren (*Eutrema japonicum*) antzeko puntu beroa, gehienez ere.

Gordinik, saldatan, era askotara jaten dira errukulak batean eta bestean, ahosabaiaren eta lurraren kulturen uztarriaren emaitza mikatzak. Gose asko berdindu duen familia da, bai aza jendearena, baita aza txikiarena ere. Ezaguna da mikatzak osasuna dakarkigula; ez da harritzekoa: sabela berdindu eta bizipoza piztu! ●

## ekologikoa, baserritik mahaira!



Euskadiko Nekazaritza eta  
Elikadura Ekologikoaren  
Kontseilua  
Consejo de Agricultura y  
Alimentación Ecológica  
de Euzkadi

Babesleak:



## LURBIZI

## LURRAREN BANKUA SORTZEN, NEKAZARITZARAKO OINARRIZKO BALIABIDEA BERMATZEKO



GARAZI ZABALETA

Oiartzunen nekazaritza bultzatzeko eta elikadura burujabetzarako bidean pausoak emateko sortu zen Lurbizi egitasmoa, 2016 urte inguruan. “Herritar talde batek denbora zeraman herrian nekazaritzaren eta lehen sektorearen egoera kaxkarrak hausnartzen”, adierazi du Ibon Mitxelena Fernández udaleko ekonomia sozialeko eta burujabetzako zinegotziak. Udalera jo zuten herritarrek babes bila, lanketa bat abiatzeko asmoarekin, eta udalak bat egin zuen haien hausnarketarekin. “Oiartzunek bazuen ohitura bat, historia bat eta baserrian bizi zen jende kopuru handia, nahiz eta ekoizpen oso gutxi egon. Ikusten zen azken 70 urteetan galera handia gertatu dela”, adierazi du.

## LURRERAKO SARBIDEA ERRAZTEA, LEHEN PAUSOA

Oiartzun Burujabe egitasmoa ere abian jarri zuen udalak, bost alorretan eragiteko asmoz, tartean, elikadura burujabetzan. “Herria geroz eta burujabeago izan dadin, lurra behar ditugu, nekazariak behar ditugu, eta nekazari horiek bitartekoak behar dituzte”, adierazi du zinegotziak. Bide horretan, lantzeko lurra eskuratzea da udalak abiatu zuen lehen lanketetako bat: “Oiartzunen erreka inguruan bazegoen lur dezente zituen baserri bat. Alokairu oso txiki baten truke udalak lur horien kudeaketa eskuratzea lortu zuen”, azaldu du zinegotziak.

Lehiaketa egin zuten ondoren lur horiek lantzeko proiektuak aurkeztu zituzten, eta herriko Elika kooperatibak eta Arraztalo elkarteak eskuratu zuten hektarea bana. Eredu ekologikoan barazkiak ekoizten ditu Elikak, eta herrian bertan



saltzen; Arraztalok ere baratze gintzan dihardu baina gizarteratze proiektu bat ere bada, desgaitasun psikikoa duten ki-deak aritzen dira bertan lanean.

## EKOIZLEAK LAGUNTZEKO BALIABIDEAK

Nekazaritza proiektuetarako inbertsioak egin ahal izateko diru-laguntzak ere ematen ditu urtero udalak, Lurbizi proiektuaren baitan. “Aurten 31 ekoizpen aurkeztu dira deialdira”, azaldu du Mitxelenak. Izan ere, nekazaritzan jarduteko, lurraz gain, bestelako baliabideak izatea ere ezinbestekoa da ekoizpenentzat. Momentuz, martxan jarri diren proiektuetan lan baldintza duinak lortu dituztela eta, balorazio positiboa egiten du zinegotziak.

Oiartzungo Elikadura Mahaia ere jarri du martxan urteotan udalak herri-

ko eragileekin lanketa egiteko. “Udala, Behemendi landa garapen elkarte, herriko nekazariak eta abeltzainak, eraldatzaileak, baseritarren elkarte eta Labore Oarso kooperatiba daude bertan”, dio. Aurrera begira, nekazaritzako proiektu gehiago behar dira eskaintza handitzeko, eta hori izan den dute eronketako bat. “Lurbizi martxan jarri zenean ez genekien ze bide egiten zen, eta tira, Elika kooperatiba sortu da, jende askok kontsumitzen dituzten bertako barazkiak, Arraztalo ere hor dago, hamar bat lagun lanean ari dira bertan, Labore saltokiak Oiartzungo 500 bazkide inguru ditu, haur eskolan bertako produktuekin ari dira lanean... pixkanaka, eta nahi baino mantsoago agian, baina bere emaitzak ematen ari dela uste dugu”, amaitu du. ●



## ASTEKARIA



ANA ZAMBRANOK UTZIA

## Papereko gurutzegramak baino ezer hoberik?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Oso umetatik orotzen dut nire burua camping-eko mahaian eserita udan argitaratzen ziren –edo guk udan erosten genituen– ariketa-liburuak aurrean. Gozaten letra-zopekin, labirintoekin... Ondo gogoan dudana bezala, pixka bat zaharragoa nintzela sukaldean nola ahalegintzen nintzen ARGIAko denbora-pasak egiten, amari gurutzegramak proposatutako definizioa irakurri eta pistak eskatzen. Oso denbora-pasa zalea izan naiz umetatik eta jarraitzen dut izaten. Tartea dudanean papereko autodefinitu eta gurutzegramak egiten gozaten dut.

Ez dakit zein urtetan egingo zioten lekua ARGIA aldizkarian denbora-pasen orrialdeari, baina nire gogoan, betidanik. Ana Zambrano da 2007az gozotik orrialde honen egilea eta kurositate handiarekin galdetu diot bere

lanaz. “Eguneroko lanak alde aurreko prestakuntza du: gaiak pentsatu, jolasak diseinatu, pertsonaiak proposatu, irudiak bilatu... Ondoren, jolasak egiten ditut, eta, azkenik, orrialdeetan sartzen ditut. Arrazoiren batengatik aukeratzeko duzun hitz batekin hasten da, eta hortik aurrera soluzioaren laukia osatzen joaten zara gainerako hitzen bila. Behin hori eginda, eta delikatuena, definizioen txanda da. Urteen poderioz datu-basea sortu dut denbora aurrezteko, baina beti da polita definizio berriak sartzeko, gaurkotasuneko gaietara egokitzea...”, azaldu digu.

Zambrano bera ere oso denbora-pasa zalea, *Gara* egunkarian hasi zen 2001ean. Gurean sei urte geroago ekin zion asteroko lanari, baina aurretik *Badakit* mahai-jokoa eta denbora-pasen aldizkari monografiko batzuk sortzeko lanetan aritu zen. “Hasi nintzenezan, la-


naren zati handi bat eskuz egiten nuen, arkatza eta papera hartu eta hainbat hiztegi alboan. Orain, ordenagailua da nire aliatu nagusia, prozesua asko errazten du, baina jokoak pentsatu eta diseinatzeak bere horretan jarraitzen du”, esan digu.

### PUBLIKO HELDUA

Gurutzegramak edo sudokuak paperean egiten dituen jende asko adineko jendea direla ulertzen du Zambrano: “Gazteek egunkaria paperean irakurtzeko ohitura ez duten heinean, denbora-pasak ere ez ditu euskarri horretan egiten”, azpimarratu du. Adineko pertsonentzat “beti egin duten zerbait” dela diosku, baina denak ez dira profil berekoak eta inguruan badu papereko denbora-pasena zalea den gazterik.

Ni, behintzat, jarraitzaile sutsua nau. ●

# Hildako guztiek ez dute berdin balio



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**N**ormandia. 1944ko ekainaren 6a. *Overlord* operazioa abiatu zuten: Britainia Handiko, AEBetako eta Kanadako milaka soldadu Normandiako hondartzetan lehorreratu ziren, Bigarren Mundu Gerraren eta, beraz, historiaren norabidea goitik behera aldatzeko. Edo horixe da behintzat duela egun batzuk, lehorreratzearen 80. urteurrenean, komunikabide gehienek errepikatu digutena.

Eta, urtero bezala, testuingurua ahaztu dute; ordurako, Afrikako, Italiako eta, batez ere, Ekialdeko fronteetan alemaniarrek atzera egin zutela. Eta Bigarren Mundu Gerran inflexio puntu bakarra aukeratzekotan, esaterako, aurreko urteko Stalingradoko gudua objektiboki erabakigarriagoa izan zela alemaniarrek mendean hartzeko. Gerrako fronte nagusia ekialdekoa izan zen, gutxi gora-behera alemaniarren gaitasun militarren %80 xurgatu zuena.

*Overlord* operazioa ere erabakigarria izan zen, jakina. Baina, berriro, 1944ko ekainaren 6an hildako 4.400 soldadu aliatuen sakrifizioa gogorarazi dute, baita operazioan zehar hildako beste 50.000 soldadu ingururena ere. Eta ez dute aipatu 24 ordu haietan 3.000tik gora zibil hil zituztela, eta operazioan zehar, guztira, 20.000tik gora, gehienak aliatu "askatzailen" eskutik. Aliatuek gupidarik gabe bonbardatu zuten aretarioa, edo, hobe esanda, arerioaren kon-



LIBRARY AND ARCHIVES CANADA

trolpean zeuden normandiar herriak. Baina datu horiek lehorreratzearen kontakizun mitifikatua ilunduko lukete.

Aliatuen garaipenaren protagonistei dagokienez, sobietarren rolari garrantzia kendu ohi zaio. *Overlord* operazioan laguntzeko, indar alemaniarrek Frantzia aldera bideratu ez zituzten, bi eraso egin zituzten sobietarrek Ekialdeko fronte: Bagration eta Lvov-Sandomeirz.

251.000 soldadu sobietar hil zituzten bi eraso horietan, eta 520.000 soldadu alemaniar. Eta horiei Frantziako frontean hildako beste 200.000 alemaniar gehitu behar zaizkie.

*Overlord* operazioak iraun zuen bitartean hildako milioitik gora soldadu eta zibiletatik soilik 55.000 ziren Normandian lehorreratutakoak. Baina horiek dira balio dutenak. ●



MUSÉE DE L'ARMÉE

## Normandiako beste lehorreratzea

1415eko udazkenean Agrincourteko gudua lehertu zen Ingalaterra eta Frantziaren artean, Ehun Urteko Gerraren gudu erabakiorrenetakoa. Horretarako, Henrike V.a Ingalaterrako errege eta Irlandako jaunak uda horretan bere ejertzitza Frantziara bidaltzea erabaki zuenean, soldaduak Normandiako hondartzetan lehorreratu ziren. Bost

mende geroago, Bigarren Mundu Gerran aliatuek estrategia bera erabiltzea ez da kasualitatea, eta, beraz, erraz aurreikusteko modukoa zen. Finean, "kointzidentzia" hori logikak eta topiko batek azaltzen dute: "Bi punturen arteko distantzia laburrena lerro zuzena da" eta "historia ezagutzen ez dutenak errepikatzen kondenatuta daude". ●



# LITERATURA

## EZ DA EZER

### ARRISKUTSUA, EZTA?

*Poesia mailu bat da* jaialdia antolatu du Azpimarra irakurle taldeak Gasteizko Gaztetxean. Ikasturtean egindako saioetan landu dituzten auziak plazaratu dituzte tailer, solasaldi, errezitaldi zein hainbat erakusketatan. “Garaia kolpatuko duen literaturaren alde” egin dute: “Artea gure garaian kokatu eta literatura izatea nahi dugunari buruz hausnartzeko elkargune izan da”.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA

**E**kainaren 6a da, osteguna. Goizeko 11:30ean gaztetxean ez dago oraindik arratsaldean egongo den jendetzarik, asteguna da izan ere, baina hasi dira pixkanaka gerturatzen eta hogeitabat lagun bildu dira atean *Poesia mailu bat da* letra larriz idatzita duen pankarta handiaren azpian. Aurpegi ezagun asko, Azpimarra irakurle taldearen ikasturteko saioetan elkar ezagutu den jendea.

#### ITZULPENGINTZA ETA AHOZKO TRADIZIOKO LITERATURA

Irakurle taldeko bi kidek prestatu dute goizeko saioa, itzulpengintzari buruzkoa. Mahaigainean jarri dute itzulpena ez dela auzi teknikoak bakarrik. Askok sormenetik eta erabakitik; ondoko galderak izan dituzte mintzagai: zer literatura mota itzultzen da? Zer autore? Hizkuntza gartzeko ere balio du itzulpenak, eta funtzio literarioa ere badu bere horretan. Literatura bezalaxe, ezin da ulertu huts-hutsean, auzi sozial eta politikoez gurutzatzen baitute. Hizpide izan dituzte irudiak eta erreferentziak beste kultura batera eramane edo ekaritzeak duen lana, hizkuntza gutxituen arazo partikularrak, eta, besteak beste, testuaren intentsioa ulertu eta hori itzultzeko prozesua.

Berriro gaztetxea ireki denean, arratsaldean, Azpimarrako kide Aratz Fernandez de Pinedok hitza hartu du irakurle taldea eta jaialdia aurkezteko: “Irakurtzeko denborarik ez genuelako, elkartu eta geure burua bultzatzeko sortu dugu taldea, eta interesatzen zaigun literaturaz hausnartzeko ere bai, mundua ulertu eta eraldatzeko. Jaialdi hau ere horretarako antolatu dugu”.

Ahozko tradizioko literaturak ere izan du tokirik. Onintze Goitiz ipuin-kontalariak *Mundu Berriko Mamuak* deitu dien bi istorio kontatu ditu, askatasunari, jabetzari eta lukurreriari buruzkoak. Julien Ormaetxearen *erruina baten istorioa* gertuago egon da antzerkitik edo baka-rrizketatik.

#### LITERATURA ETA POLITIKAZ HAUSNARTZEKO PARADA

Irakurle taldea bai, baina literaturaz, politikaz eta idazlearen konpromiso sozial eta politikoaz hausnartzeko espazioa ere izan da bai jaialdia eta bai Azpimarra irakurle taldea, sortu zen unetik. Ez da harrizkoa, hortaz, jaialdian bertan ere tamainako mahai-ingurua antolatu izana horretarako. Agerikoa da auziak interesa piztu duela, ehun lagunetik gora etorri baitira entzutera, belaunaldi

ugarikoak. Eli Irazuk gidatuta, Martin Bidaur, Uxue Apaolaza eta Joseba Sarrionandia idazleak gaztetxeko oholtzan eseri dira jende ugari so dutela.

Anekdotak bat bota die Irazuk hasteko: “Irakurle taldeko bi kide jaialdi honetxan kartelak jartzen ari zirenean unibertsitatean, eta *segurata* etorri zitzaie oldarkor. Kartela zer zen ikusita, harrituta, esan zien: “*Ah, literatura, pero esto no es nada malo, no?*” (Ah, literatura, baina hori ez da ezer txarra, ezta?).

Martin Bidaurren arabera, idazten diren gauza iraultzaileak kaltegabeak suertatzen badira, giharra emango dion mugimendurik atzean ez dutelako da. “Pertsona batek bere gelan idazten duenarekin agian zerbait aldatuko du, baina muga handiak izango ditu”. Literaturaren gaitasuna azpimarratu du “esploratzeko, sentipenak, ideiak arakatzeko”. Konplexutasun horrek ematen dio potentzialitatea ideia berriak sortu eta jendearengan eragiteko.

Literaturak existentziaren aukerak zabalitzen dituela gehitu du Apaolazak: “Ez dut uste izan behar duenik norbere burua islatzeko edo identifikatua sentitzeko, azkenaldian hori asko entzuten bada ere; balio behar du erakusteko mundua esaten dizutena baino konplexuago dela”.



Komunikazioa eta translazioa al da literatura azken buruan? Joseba Sarrionandiak asko jardun du horretan. Bi atsekabe, bi helburu politiko zituzten bere belaunaldiko euskal idazleek: euskara estandarra eta hizkuntza literarioa sortzen laguntzea, eta erdaretako literatura euskarara ekartzea. Gaur egun, baina, egoera eta errealtate soziolinguistikoa bestelakoak dira: hizkuntza eta kultura zapalduen faseetan gertatzen zaien bezala, hiztun elebakarrik jada ez dago eta euskarak ez du *normala* den espaziorik, esaterako.

Sarrionandiaren ustez, egitekoa orain hizkuntza literarioari aniztasuna ematea da, erregistro gehiago, ahozkotasunetik gertuagokoak finkatzea: "Egun, gazteak eta nerabeak hizkuntzarekin ez identifikatzearen motiboetako bat izan daiteke hizkuntza bera, euskara, formalegia ikustea".

Euskal literaturaren ekosistemaz, oso txikia eta prekariora bada ere, "gutxi gorabeherako egonkortasuna duen argitaletxe, sari eta azoka sarea" lortu dela aipatu du Bidaurrek. Ez du uste sistema sano baten erreferentzia gisa hartu behar direnik hizkuntza hegemonikoe-

tako merkatuak. "Badago ideia bat, merkantilizazioaren bidetik etorriko dela salbazioa, literaturarena, euskararena. Nik uste dut azken urteetako Euskal Herriaren, euskal literaturaren eta euskalduntzearen historiak erakusten digula borondate militantea egon delako egin duela aurrera; borondate politizatua eta konprometitua egon delako euskararekin, literaturarekin eta politikarekin oro har".

Itzulpenetan ere nabari da. Apaolazaren ustez, joera dago euskal idazleek itzulpenean pentsatzen idaztekoa eta horrek "hil egiten du literatura". "Ustezko publiko unibertsal bati idazten badiot, ez diot inori idazten", gehitu du. Euskal literaturaren autonomia indartu behar delakoan dago Sarrionandia, ez dadin baloratu soilik Espainiako sistema literarioa itzultzen denaren arabera.

Kapitalismoak langileei inposatutako bizi-baldintzek eta erritmoak garapen literarioan duen eragin bortitzez aritu dira bukatzeko, denboraren garrantziaz batez ere. Apaolazaren hitzetan: "Pentsamendua lapurtu digute, ideia konplexuetarako denbora eta gaitasuna. Denbora duina aldarrikatu behar dugu".

## GAU EPELA, GIRO ALAIA

Musika berriro eta apur bat bareago dago gaztetxea. Poesia mikro irekian irakurtzeko prestatu da jendea. *Biharraren hegietan* (Maiatz, 2024) argitaratu berri duen Maddi Sarasua izan da oholztan, bat aipatzearren.


22.00ak aldera, eguna ordurako ilunduta, kantaldia eman du Aurki taldeak. Tradizio iraultzaileko abesti ezagunak kantatu dituzte gitarra, teklatu eta zeharkako txirulak lagunduta. Entzuleak kantari, dantzan, txaloka eta oihuka aritu dira.

Bukatu da eguna, Dervishen musika elektronikoa gaztetxeko tabernan, eta udako gau giroan oraindik etxera joateko gogorik ez duen jendea dantzan eta solasean.

Biharamunean zer aje, zer ideia utziko ditu airean, Gasteizko Gaztetxean sorturikoak? Literatura hutsala al da? Artea antolamendu sozialetik at dago? Estetikaren arauak gidatzen dute soilik? Ala izan daiteke arriskutsua ere? Geuk nahi dugun funtzioa eman? Beharbada hurrengoan Campuseko segurtasun indarrek debekatu egingo dituzte literatura jaialdiko kartelak. Zaindaria begira ez dagoenean jarri beharko dituzte. Seinale ona izango da agian, literatura mailu den seinale. ●







# Dena zalantzan jarrita

PAULA AMILBURU OLATZ ZUAZUBISKAR

**P**ortugaleteko zubitik berrehun bat metrora, ekainak 8, arratsaldeko 17:30ak. Publikoa bero eta inguru arrosa-horiz jantzia. Bertsolari txapelketen antitesi gisa hasitakoak kasik, atrezzoan ere txapelketak ohituta gaituen soiltasun eta seriotasunetik kanpo kokatu gintuen: ikusle eta bertsolarietiek brotze arrosa bana bularrean, xaboi arrosak, katilu horiak, loreak nonahi eta albo batean, pamela, nola ez, arrosa.

Oholtzan zortzi protagonista, saio bakarrera jokatu zen IV. Señora Sariketan. Hainbat galbahe pasa ondoren, Haira Aizpurua eta Jone Uria iritsi ziren buruz burukora. Zalantzan jarri ezin zena zalantzan jartzeari kantatu zion arratsaldeko pameladun Jone Uriak, pameladunaren agurrean. Esan baitaiteke S.S.-k kolokan jarri dituela lehiako bertsolarietaren alderdi asko: dekorazioetatik hasita, ber-

tsolari, gai-jartzaitza eta epailetzatik pasa eta errimategira arte, adibidez.

Z Belaunaldiaren hiztegia ezagutzen ez genuenontzat *belarriprest* eguna izan zen Señora Sariketarena, Ibai Lekuonari eskerrak batik bat. Turista ingeles baten papera esleituta *slaytu* zuena, *queen* -alegia, egurra eman zuena *señora* izan zela. Epailetzari dagokionez, aipatzekoa da Tokado Saria: bihotz formako gometxek gorpuztu eta bihotzak gehien uzkuritu dituen bertsolariak jasotzen duena, aurtengoan Eukene de los Airesek.

Saioak buruz burukoan jo zuen goia. Bitartean esan liteke zortziek *slaytu* zutela momenturen batean. Ane Zuazubiskarrek S.S.ko antolakuntzako zorroztasunaren performancetik. Araitz Katarain eta Irati Majuelo pisukide bihurtzeko elkarrizketan, Iratiren aspaldiko *crush*-a Araitz zela. Maialen Akizu primeran

## SEÑORA SARIKETA

**NOIZ:** Ekainaren 8an

**NON:** Portugaleten

ere 1-bere *outfit* txoni-txandaleroan eta 2-egurra banatzen. Eukene de los Aires ederki ibili zen ohepeko-munstro jatorraren parean.

Eta Jone Uria eta Haira Aizpuruz zer esan. Buruz burukoko seiko motzean eta puntukako saioan iritsi ginen presente geundenak estasira. *Gure esku dago* ekimenetik hamar urte pasa ziren egunean norbere esperientzia kontatzen zorrotz ibili ziren biak. "Gure herri ta erbeste/baikembiltzan horren eske/ optimismoa behar zen baina, igual ez hainbeste" Jonek; Hairak "galdu dira merituak/ militantzi kredituak/ gazteei idortu egin zaizkigu esku izerdituak". Puntukako saioak ere bihotzak uzkuritu zizkigun, Hairak Joneri aitortu baitzion haren ametsetako buruz burukoa jokatzeko ari zela. Aurtengo amaizuta, V. edizioaren esperoan geratu beharko. ●





LIBURUA

# Lora dadin deika



EUSKAL IRATIAK

## BIHARRAREN HEGIETAN

MADDI SARASUA LASKARAI

MAIATZ, 2024

**MADDI GALDOS ARETA**

**N**eguko naretasun hotz eta lur etzearen ostean etor daitekeenaren promes izaten da udaberria, eta hainbatek eta hainbatetan idatzi izan diote lora dadin deika. Promesak promes, ordea: ez da inoiz udaberri ziurrik galbidean den lurtean. Ez behintzat aldaketaz edo, zehazki, iraultzaz ari bagara. Maddi Sarasua Laskarai (Itsasu, 1995) argiki dihardu horretaz argitaratu berri duen *Biharraren hegietan* (Maiatz, 2024) poema bilduman. Lerratu egin nahi izan ditu lerrook, irakurleoi “dei egin diezazueten esnatzean / istorioek historia idaztera”.

Hiru ataletan banatu ditu itsasuarrak liburua osatzen duten 61 poemak. *Katez beste* ataleko poemek gaur arte heldu diren kateak dituzte jopuntuan: izan lotzen gaituztenak zein askatu, boron-

datez sortu izan direnak. Bertan gailentzen den gutasunak zein hizpide diren ziklo aldaketak eta belaunaldi arteko arrakalak liburu osoa zeharkatzen dute, bildumaren muina “mundu honez beste egitera” doazen borondate politikoa dela gaineratuta.

*Zulodun zapatak* atalak eguneroko kontuetara gehiago hurbiltzen direnak ditu hizpide, tartean, garaiotako inguruei erreparatuta: bertan aurki daitezke lansaripeko lanaren zama, zubipeko oheak zein bestelako egia gordinak, baina baita itxuraz intimoago diruditen zailantza eta minak ere. *Goiza da orain* atala posible denaren aldarri da bere horretan, ahaleginetan dabiltzan ahaleginen lekuko, grina-iturri: gorri koloreko lore txikiak ageri baitira engaiatutako esku zimurgabeetan.

Hainbat autore dakartza Sarasuak orriotara, aitortzaren eta berridazketaren artean egun dugunarentzat zentzu berrituen bila. Halaber, olerkietako batzuk gertaera edo ekitaldi jakin baten kariatara sortutakoak direna dago adierazita: poesia ez baita gelako bakar-dadeetara mugatu beharrik. Idazkera neurritsua da olerkietakoa, eta errimek zein hotsen errepikapenen gisakoek doinu eta erritmo gozagarriak eskaintzen dizkiote irakurleari.

Gopeguiri irakur dakioke askatasuna ez dela, akaso, nora goazen erabakitzea, baizik eta non kokatzen garen aukeratzeta, joan nahi dugula ikasi ahal izan dugun tokira joaten ahalegintzeko. Eta horixe da Sarasuak orriotan dakarkiguna: hegi bat, finean, begiekin urrunera ikusi ahal izan eta ibilian abiatzeko. ●



MUSIKA

# Koherentziaren ordaina



## FLY SHIT ETA BROT BORD

KASBA MUSIK

IKER BARANDIARAN

**D**ebagoienan izan den hardcore talde bakarrenetarikoa da Fly Shit. Asmo handirik gabe eta egiten dutenean erabat sinistuta; presak estutu gabeko, eta era berean, etenik gabeko ibilbide sendoa daukate bizkarrean. Are gehiago, ez dute inoiz kontzertu txarrik eman, ezta soberako pausorik ere.

Gaztetxeen, etxe okupatuen eta autogestioaren bidean eta testuinguruan beti, hardcorea sasoiko mantentzeaz gain, berau dotoretu eta aberastu dute 30 urteotan egin duten lan bakoitzean.

Abesten dutena bizi dute erabat, eta bizitzak uzten dizkien zirrikituak baliatzen dituzte gustukoaren dutena egiteko: grabatzeko eta zuzenekoak emateko.

Lanak eta koherentziak ordaina

dute –edo beharko lukete!– eta, nolabait, horren opari gisa hartu dute Brot Bord talde katalanarekin erdibana osatutako diskoa kaleratzea Kataluniako Kasba Musik zigiluak. Biak ala biak lan berria aurkezten dabilta gustura Euskal Herrian, Katalunian eta bizitzako agendek aukera ematen dieten beste hainbat tokitan.

Pausoz pauso hazten ari da Bergarako laukotea; hardcorean gero eta esparru gehiago arakatzen eta gozatzten ditu. Lan honetan sei kantu berri batu dituzte. *Elkarrekin egin dezagun* pieza aberatsarekin hasi dute diskoa, zeinak erakusten duen taldeak aurreiritziak aspaldi uxatu zituela, abestiak lau minutu eta erdi pasako iraupena baitu. Post-hardcorearen onena dara-

man *intro* berezia dauka, tempo erdiak, eta malenkonia eta ezinaren arteko garratzasuna puri-purian. Jarraian dator *Hitzak*, eskola zaharreko hardcore-punk azkarra, pasarte melodikoak ere uztartzen dituena. *Esnatu lozorrotik*-ek badu ia metaleroa duen pisua –neurtua–, eta pieza indartsu bezain jostari egiten duten riff eta erritmo bereziak. *Sumina* tempo erdiak, ia rapeatuak, eta erritmo askeagoak batzen dituen hardcore pieza da. Eta bukatzeko Fugazi musika talde handiaren *Merchandise* euskarara irmo ekarrita.

Brot Bord taldea ezin aipatu gabe utzi. Kataluniako beterano batzuek osatutako taldeak melodia nabarmentzen den hardcore-punk-rocka egiten du, malenkoniatsua. ●



# Traidoreak, zonbiak, Terminator eta Mbappé

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**P**ena da Hego Euskal Herriko medioetan Pancorboko puzker batek garrantzi handiagoa hartzea Aturritik gorako edozerk baino. Orokorri diot, baina partikularki pasa den asteari dagokionez. Ze frantsesak, normalean hain, tira, frantses izateko ohitura duten izaki horiek, frenetiko samar dabilta plano politikoan, eurobozetan haien presidentearen enpresa-alderdia eskuin muturraren aurrean *macrincranon* puskatu eta legebiltzarrerako hauteskundeak aurreratu dituztenetik. Edizio berezi *non-stop* batean sartuta dagoen BFMTV katea bihurtu da nire aurtengo telesail gogokoena, erretinaren aitzinetik denetik pasarazi baitigu azken egunetan.

Éric Ciotti Les Républicains alderdiko presidentearen saltsa, adibidez. Dena dauka: traizioa –hauteskundeetan lepenistekin batera aurkeztea adostu baitu, alderdiaren iritzia zangartetik pasaz–; mendekua –ez si eta ez no, tipoa partidutik bota dute maniobra horren ondoren–; komedia –Ciotti alderdiaren

kuartel nagusian lubakitu da, “etorri ni botatzera potrorik baduzue” esanez bezala–; telenobela judiziala –jujeek diote Ciottiri emandako ostikoak ez duela baliario VARetik pasa arte–. Beldurrezko pelikula osatzeko Chirac-en zonbia agertzea bakarrik falta da, “zer debru, orai xuriak gorri behar ote gira bilakatu!” galdezka.

Éric Zemmour eta Marion Maréchal arteko haustura ere grazioso izan da: bi urte eskas pasa dira Marine Le Penen ilobak bere familiari adarrak jarri zizkionetik, ultraeskuinaren zaldi irabazlea zirudien Reconquête alderdia zamalkatzeko. Apustua ustela atera eta, arratoiak estoldara nola, halaxe ari da itzultzen lependarra lepentzean bazkatzera.

*Rive gauche*-an ere tenperatura emozionalak gorabehera handi samarrak izan ditu. Fronte Popular berria iragarri zutelarik, ezker-ezkerreko, ezker samarreko eta ezker nominaleko boto-emai-leak beroago jarri ziren aitatzik *Emmanuelle* filma lehen aldiz ikusi zuenean baino. Epikaren ordua pasa eta axoa

banatzen hastean komeriak: bateko Raphaël Glucksmann –nire nomenklatura pertsonalean “Makrontxo”–, koalizioak irabaziz gero Matignonera nor bidaliko lukeen aurreratzen inori galdetu gabe; besteko Jean-Luc Mélenchon, bere sokakoak ez diren diputatuak ababor-istribor hautagaitzetatik botatzen eta, bitartean, indarkeria matxistagatik kondenatutako kamarada bat zerrendetan mantendu nahian. Eta lehenago zonbiak aipatuak izan direnez, hara non agertzen den François Hollande, Fronte Popularraren zigiluarekin hautagai, ezkerren batasuna aldarrikatzen eta... itxoin pixka bat, mesedez. [23 minutu geroago] Barka, hemen naiz berriz: aterra zaidan algara transkribatu izan banu artikulua pare bat beteko nituen karkarrez, ez zen kuxidada.

Kontua ez dago iji eta aja askotan aritzeko, gainera. Jordan Bardella pantailan agertzen zaidan bakoitzean gogoratzen dut: sentsazioa neukan RN-ren hautagaia lehenago beste nonbait ikusia neukala; desinfoxikazio premiak hartararuta katez aldatu, *Terminator 2* ematen ari zirela ikusi, eta hara non konturatzen naizen Arnold Schwarzeneggerrekin kinki-kanka borrokan zebilen metal likidozko robot-poliziarren igual-iguala dela.

Horrelako zomorroa geldiarazteko tamaina bereko robot politiko baten faltan, Kylian Mbappé futbolaria sartu da kanpainen gazteak botoa ematera animatuz, “muturretako” indar politikoak boterearen atarian baitaude. Datorren auzotik etorrira, askok ulertuko zuten ultraeskuinaren aurkako deia izan dela. Zalantza geratu zait ez ote den izan, daukan milioitza edukita, zergak igoko dizkion ezker mutur hipotetiko baten orde, macroncrinran puskatua konpontzeko keinua ere. ●





**EHZ** 

**HEMENDIKI!**

**EKAINAK 28.29.30 JUIN  
ARBERATZE-ZILHEKOA**







**Biolur**  
Gipuzkoa



**LURRA  
HERRIARI  
DEIKA**

Prezioa **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
**BIZUM** bidez ordaindu daiteke.

**ARGIA Azoka**

**azoka.argia.eus**

**(+34) 943 37 15 45**